

HIZTUNAK ETA HIZKUNTZAK INFORMAZIO PANELA



DBHko 1. maila, Hizkuntzen Tratatara Bateraturako materialak

**HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA
PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS**

DBHko 1. mailarako materialak / Materiales para 1º de E.S.O.

PROIEKTUA / PROYECTO: Hiztunak eta hizkuntzak

UNITATEAK: **Hiztunak eta hizkuntzak. Informazio panela.**

UNIDADES: Los hablantes y las lenguas. Exposición oral.

ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA: Teresa Ruiz
DIRECCIÓN Y COORDINACIÓN:

SORTZAILEA: Maitena Olabarriaga
AUTORA:

KOLABORATZAILEAK: Pilar Amurrio, Maribi Apraiz, Marimar Pérez eta Hizkuntza
COLABORADORES: eta Gizarte esparruko Bigarren Hezkuntzako Aholkulariak

Berritzegune Nagusia (Bilbao)
Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
Gobierno Vasco. Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**MATERIAL HONEN JABETZA EUSKO JAURLARITZARENA DA
MATERIAL PROPIEDAD DEL GOBIERNO VASCO**

2008ko urria
Octubre de 2008


Proiektu hau, Euskal Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan garatuko da. Gazteleraz, Estatuko hizkuntzei buruzko ahozko azalpena egingo duzue. Azalpen hau, zuena ez den lehenengoko DBH-ko gelan egingo da. Euskaraz, informazio-panelak direla medio, zuen eskolako hizkuntzei buruzko azalpen idatzia burutuko duzue. Hau, ikastetxeko pasabideko horman jarriko da. Proiektu hau honako egituraren arabera ardaztuko da:

0. jarduera. Motibazioa eta negoziazioa
1. LAN-SEKUENTZIA. HIZKUNTZAREN ERABILPEN EREMUAK BEREIZTEN • 1. Jarduera. Komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak. • 2. Jarduera. Testuak eta erabilpen eremuak. • 3. Jarduera. Ikasketan erabilpen eremuko testuak.
2. LAN-SEKUENTZIA. INFORMAZIO-PANELAK AZTERTZEN • 4. jarduera. Informazio-panelen egitura. • 5. jarduera. Informazio-panelaren testu idatzia aztertzen.
3. LAN-SEKUENTZIA. INGURU HURBILEKO HIZKUNTZA-ERREALITATEA • 6. jarduera. Eskolako hizkuntza errealitatea aztertzen. • 7. jarduera. Euskararen egoera. • 8. jarduera. Informazio jasotzen. • 9. jarduera. Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak gogoratzen.
4. LAN-SEKUENTZIA. ESKOLAKO HIZKUNTZAK: ZER DAKIT EURETAZ? • 10. jarduera. Zer dakit eskolan mintzatzen diren hizkuntzez? • 11. jarduera. Euskararen bilakaera.
5. LAN-SEKUENTZIA. HURBIL GAITEZEN INFORMAZIO ITURRIETARA • 12. jarduera. Hiztegi motak bereizten. Hiztegiz hiztegi. • 13. jarduera. Hainbat testutatik hiltunen eta hizkuntzen eremuko hitzak biltzen. • 14. jarduera. Lexiko sorkuntzarako bideak. Hitz elkartuak eta eratorriak. • 15. jarduera. Gelako hiztegi soziolinguistikoa.
6. LAN-SEKUENTZIA. INFORMAZIO-PANELA GAUZATZEN • 16. jarduera. Informazio-panelaren kontestualizazioa. • 17. jarduera. Informazio-panelaren plangintza. • 18. jarduera. Testualizazioa. • 19. jarduera. Berrikusketa. • 20. jarduera. Ebaluaketa.

Hausnartzeko

Hizkuntza eta hiztunen aniztasuna nonahi.

Europako hizkuntzak



Mapa honetan, Europako herrialde bakoitzean zer hizkuntza erabiltzen diren ikus daiteke. Europako herrialdeak hartzerakoan Europako Batasunekoak ez ezik, Uralak eta Kaukasokoak ere kontuan hartu ditugu. Hizkuntza bat baino gehiago dituzten lurraldeak marren bidez adierazi dira.

Zeintzuk dira
Europako
Parlamentuko
hizkuntza
ofizialak?

Estatu bakoitzean
ofizialak diren
hizkuntza guztiak,
ala horietatik,
bat baino ez da
ofiziala Europan?

Euskarak badu
agerpenik Europako
parlamentuan?



	Zer egin behar dugu eguneroko bizitzan, agerpen gutxi duen hizkuntza galdu ez dadin? Komunitate elebidunetan, nola errespetatzen dira hizkuntza bakoitzeko hiztunen eskubideak? 
Taldeka bildurik goiko mapa eta galderei erreparatu ondoren, hitz egin ezazue eurok adierazten dutenaz. Lagungarri gisa erabili ondoko galderak • Zein informazio mota ematen digute mapa linguistiko horiek? • Zer adierazi nahi dute zuen ustez? • Mapa horien artean aurkitzen duzue parekotasunik? Zein? • Badu zer ikusirik goiko izenburuak mapetan adierazten denarekin? Zein?	Goiko hausnarketak, bata Europa mailan egiten da, eta beste, aldiz Euskal Herrian. • Galdera horiek, zer dute komunean? • Goiko galderentzat, baduzu erantzunik? Eman, duzuna. • Orain, bateratu iritziak.

1. jarduera. Negoiazioa

- Zer egingo dugu?
- Zeri buruz hitz egingo dugu?

1. Zein gaitan jantziko naiz, "adituaren" paperean sartuta, ikasi dudana nire ikaskideei kontatzeko?

- o Nire eskolako hizkuntzak
- o Euskararen egoera soziolinguistikoa
- o Zein da euskararen jatorria?
- o Hizkuntzen arteko harremanak
- o Hizkuntzen arteko gatazkak
- ✓ Aukeratu nahi dituzunak, eta kendu edo gehitu beste batzuk.

2. Zein testu tipoz eta testu motaz baliatuko naiz, testuak izan behar duen komunikazio asmoa, hau da, gaiaren ulermen eta ezagupen maila handitzeko? Aukeratu egokiena

Testu tipoa	Testu generoa	Komunikazio asmoa
Narrazioa	Ipuina, eleberria. Albisteak, kronika, erreportajea...	Entretentzea Informatzea
Azalpena	Testuliburua, informazio-panela, monografia, txostena, koadro sinoptikoa, inkesta...	Informazioa ulertaraztea. Hau da, edozein gairi buruz ulermen eta ezagupen maila handitzea.
Argudioa	Iritzi artikulua, mahaingurua, erreklamazioa, ponentzia...	Konbentzitzea, iritziz aldaraztea, limurtzea.

3. Komunikazio asmoa informatzea izanda ere, jasotzen eta ematen den informazioa, eremuaren arabera, era batekoa edo bestekoa izango da; beraz, zeure ikaskideei ulertarazi nahi diezun informazioa, gai horretan bere ezagupen maila handitzeko, zein eremutan kokatuko zenuke?

Aukeratu egokiena

Eremuak				
Komunikabideetan	Instituzioetan	Ikasteko eremuan	Pertsona arteko harremanetan	Literaturan


4. Zein informazio iturritara jo beharko zenuke informazioa jasotzeko?

- Entziklopedietara

- Egunkarietara
- Olerkien antologiara
- Testu liburuetara
- Aldizkari espezializatuetara
- Hiztegieta
- ...

Aukeratu egokienak eta gehitu bururatzen zaizkizun beste batzuk.

Orain badakizu "Nire inguruko hiztunak eta hizkuntzak" izenburu duen gaia azaltzeko zein testu tipo erabiliko duzun, hau da,, zein testu genero, hots, baita zein eremutan kokatuko zenukeen,, eta zein iturritara jo beharko zenukeen, hots,, informazioa aurkitzeko.



Proiektua

Ikastunitatean zehar hiltunez eta hiltuntzaz ikasiko duzena, zuen maila bereko ikaskideei jakinaraziko diezue ikastetxeo pasabidean jarriko duzen informazio-panela dela medio.

Informazio-panelaren itxura ondo zaindu beharra dago, ahalik eta azkarren irakurtzeko modukoa izan behar da: marrazkiek, irudiek, eta testu idatziek ondo tartekatua egon behar dute .

1. LAN SEKUENTZIA

HIZKUNTZAREN ERABILPEN EREMUAK BEREIZTEN

Sekuentzia honen bitartez konturatuko zarete komunikazio egoera bakoitza eremu zehatz batean garatzen dela. Eremuak zeintzuk diren jakin ostean, ikasketako hizkuntzaren eremua hartuko duzue aintzakotzat, eremu honetan kokatuko baituzue unitate honetako azken ekoizpena.

1. jarduera. Komunikazio egoerak eta erabilpen eremuak.

Binaka jarrita, ea gai zareten Komunikazio egoera hauetan egonez gero, zuen ahozko zein idatzizko ekoizpena dagokion eremuan kokatzeko.

Lotu gezi baten bidez komunikazio egoera dagokion erabilpen eremuaz.


Hizkuntzaren erabilpen Eremuak Bereizteko lehenengo Txantiloia	
Komunikazio egoera	Erabilpen eremuak
- Ikaskide bati irakasleak emandako azalpenaren laburpena kontatu nahi diozu. - Lagun bati email-a idatzi nahi diozu. - Ikastetxeko zuzendariari baimena eskatu nahi diozu geletako ordezkariak biltzeko. - Euskara goraiatzeko olerkia idatzi nahi duzu. - Eskolako aldizkarian, zure ikasketa mailako futbol edo saski-baloiko txapelketaren berri eman nahi duzu.	Hizkuntza komunikabideetan, (egunkariak, irratia, aldizkaria,telebista) Hizkuntza pertsona arteko harremanetan, (Familian, lagun artean) Hizkuntza instituzioetan, (Administrazioa, kultur elkarteak, entpresak) Ikasteko hizkuntzan (Eskolan, Unibertsitatean, ikasteko ekintzekin lotua) Hizkuntza literaturan (Bertso txapelketa, eleberriak, ipuinak)

2. jarduera. Testuak eta erabilpen eremuak.

Orain testuak erabiliko ditugu. Saia zaitezte behean dituzuen testuak dagozkien eremuetan kokatzen.

Horretarako, erabili 2. txantiloia eta jarri gurutzea dagokion zutabean.

Hizkuntzaren erabilpen Eremuak Bereizteko 2. Txantiloia					
Testuak	Eremuak				
	Hizkuntza komunikabideetan (egunkariak, irratia aldizkaria, telebista)	Hizkuntza pertsona arteko harremanetan (Familian, lagn artean)	Hizkuntza instituzioetan (Administrazioa, kultur elkarteak, enpresak)	Ikasteko hizkuntzan (Eskolan, Unibertsitatean, ikasteko ekintzekin lotua)	Hizkuntza literaturan (Bertso txapelketa, eleberrak, ipuinak)
1. testua					
2. testua					
3. testua					
4. testua					
5. testua					



Lehenengo testua

***Geurez garenaren erdian,
geuron bihotzean gaudenean bildurik,
orduan gaude garen guztiaz
guztira zabaldurik.
Erdiak ertz oro
eta ertzerainokoa bere
Gure herria hemen hasten da,
zerupe honetan, lur gain honetan ...
Hemen da hasten,
lurralde honetan,
herri honetan,
etxe honetan,
gorputz honetan,
bihotz honetantxe ...
eta bihotzez bihotz osatzen dugu etxea,
etxez etxe, herria,
herriz herri, mundua;
munduz mundu, unibertsoa,
eta unibertsoatik ate,
haragorik ez den aldean hedatzen.
Herritarren bihotzondoan oinarriak dituen herriak,
herri horrek bakarrik
ez du besteek bezala bazterrik, ez azkenik;
ihotzean hasiera duen herriak ez du azkenik,
ez duelako bihotzak hastapenik.
*Bihotzetik baizik ezin
inork beste inori
bihotzeraino mintza ahal.****

Josan Artze «Hartzut»

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1098709652

2. testua

Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (1996ko ekaina):

28. artikulua: Hizkuntz komunitate orok bere hezkuntza antolatzeko eskubidea du, kideek beren kultur ondarea (historia eta geografia, literatura eta beste kultur adierazpenak) sakon ezagutzeko aukera izan dezaten, baita nahi duten beste edozein kulturaren adierazpenak ere ahal den sakonen ezagutzeko.

Bestetik, hala dio **UNESCOren Batzar Orokorreko 31. bilkuran (2001-11-2an) kultur aniztasunari buruz egindako Adierazpen Unibertsalak:**


Baieztatzen du, kultur aniztasuna errespetatzea, tolerantzia, elkarriketa eta elkarlana, betiere elkarrenganako konfiantza eta elkar ulertze giroan, nazioarteko bakearen eta segurtasunaren bermerik onenak direla.

Helburua delarik gizakiaren batasunaren kontzientzia eta kultur harremanen garapenean oinarritutako elkartasun handiagoa lortzea.

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1098709652

Instituzio eremuetan
ere, azalpen testuak!

Zeintzuk dira azalpen
testuei dagozkien
ezaugarriak?



3. testua

Europako Estatu Txikiak

Kontinentearen mendebaldeko eskualdean dozena erdi herrialde ñimiño daude, neurri handian erdi aroko borroken oinordekoak eta gaur egun izugarrizko aberastasuneko enklabeak direnak.

Monakoko printzerria

Frantziar lurraldearen barruko kostaldeko enklabea. Monakoko Estatu osotasun bat osatzen duten jarraian dauden hiru hirigunez osatua dago: Monako, Montecarlo eta La Condamine. Herrialdearen azalera horren txikia da ezen hiriaren parte bat bere mugetatik kanpo dago eta Frantziako lurra okupatzen du. Grimaldi familiak erreinatzen du Monakon XIII. mendetik, errege-familiak ondorengorik ez izatekotan lurraldea Frantziaren menpe geratuko zenaren baldintzapean. Zerbitzuak eta turismoa dira baliabide ekonomiko nagusiak. Bere kasinoa da bereziki ospetsua.

San Marinoko Errepublika

Italiar lurraldeaz guztiz inguratua, San Marinoko Errepublika estatu independente moduan mantentzen da IV. mendetik. Ekonomia batez ere turismoan oinarritzen da, nahiz eta nekazar eta industria sektorea izan garapen maila nahikoarekin.

Vatikano Hiria

Vatikano hiria Erroma barnean dagoen enklabe ñimiño bat da. Beste dependentzia batzuekin, eliza katolikoaren egoitza da eta Estatu bezala duen egoera berezia da, izan ere herrialde bat baino gune administratibo eta politiko bat da bakarrik. Berezitasun moduan, latina hizkuntza ofiziala den munduko estatu bakarra dela aipatu behar da.



http://www.hiru.com/geografia/geografia_03900.html

4. testua



Erromatik maitasunez

Erroma, apirilak 28

Adiskide maitea:

Agindu nizun bezala, San Pedro elizaren irudirik politena bidaltzen dizut.

Hiri hau monumentuz josita dago. Bertotik ibiliz, dirudi 4. DBH-ko gizarte liburuan murgildurik nagoela.

Aste bete daramagu Erroman eta ikusita ditugu monumenturik aipagarrienak: Koliseoa, erromatarren foroa, Vatikanoa... Beno, "Fontana de Trebira" ere joan gara, eta ohiturak agintzen duen bezala, txanpon batzuk bota ditugu. Hor bai ikusi ditugula gazte pilo bat, zein baino zein ederragoak, hizkuntza ezberdinez mintzatzen!. Gozamena!.

Hiri miragarria da benetan! Nik lehendik ere ezagutzen nuen; baina, berriro ikusi arren, ez naiz inoiz aspertzen.

Beno, Saioa, bueltatzerakoan gauza zehatzagoak kontatuko dizkizut.

Agur, laster elkar ikusi arte. Maite

<http://www.lukor.com/cgi-bin/cards/card.cgi>

5. testua

Euskararen egoera orokorra «osasungarria» dela esan du Unescok

**Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoera kritikatu ditu,
'Hizkuntzen Mundua' txostenaren euskarazko bertsioaren
aurkezpenean**

Asier Iturriagaetxebarria – BILBO



Felix Marti

Munduan hitz egiten diren 6.000 hizkuntzen bi herenak galduko dira XXI. mendean. Horixe da Unescok munduko hizkuntzei buruz egindako txostenaren ondorioetako bat.

Horien artean ez da euskara izango, atzo Felix Marti Unescoren Hizkuntzen Mundua lanaren koordinatzaileak adierazi zuenez. «Euskararen egoera osasungarria da, nahiz eta beti ere erlaxatu gabe eta tentu handiarekin jokatu behar den».

<http://www.berria.info/hemeroteka>

Baikor azaldu zen Marti euskararen egoeraren inguruan, baina gogoan izan zituen Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko egoerak. «Batean eta bestean euskarak duen egoerak biziki kezkatzen gaitu».

Era berean, gogor kritikatu zuen Nafarroako Gobernuaren jarrera, «euskararen aldekoak ez diren neurriak hartzen dituelako». Dena den, euskararen egoera orokorra ona dela esan zuen. «Badago hizkuntza laguntzen duen gobernu bat eta gizartean bertan badago hizkuntzaren aldeko kontzientzia».

Munduko hizkuntzen etorkizunaz baikor mintzatu zen Marti.

Euskararekin egin bezala, munduko hizkuntzen etorkizunaz baikor mintzatu zen Marti. Adu batzuek diote hurrengo hamarkadetan egun munduan hitz egiten diren hizkuntzen %90 galduko direla.

Marti ez zen bat etorri ideia horrekin, eta hizkuntza komunitate askotan norbere hizkuntza eta identitatea zaintzeko mugimenduak sumatzen dituela azpimarratu zuen.

Ekainean argitaratu zuen Unescok Hizkuntzen Mundua lanaren ingelesezko bertsioa. Atzo, ordea, euskarazko bertsioa aurkeztu zuten, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) argitaratua. Marti kataluniarra lanaren koordinatzailea izan bada ere, proiektuaren sustatzaile nagusiak Euskal Herriko hizkuntzalariak izan dira, eta gehiengoak dira lanaren egileen artean.

3. jarduera. Ikasketa erabilpen eremuko testuak.

Zuen lana hau izango litzateke: binaka jarrita, ezkerreko zutabetik, hau da, testu generoen zerrendatik, hartu, ikasketako hizkuntzako eremuan ekoizten direnak, eta eskuineko zutabea idatzi.

Horietaz gain, eremu horretan koka daitekeen beste testu generorik ezagutuko bazenute, gehitu.

Testu generoak	Hizkuntzaren erabilpen eremua
	Ikasketako hizkuntza
• Hiztegiko definizio • Eskolako araudia • Kronika • Biografia • Deskribapen zientifikoa • Komikia • Editoriala • Natur zientzietako azalpena • Olerkia • Eskolako azalpena • Bandoa • Monografia • Gutuna • Egunerokoa • Gizarte arloko azalpena	

Ikasteko hizkuntzaren eremuan kokatu dituzuen testu generoak azalpen testuak dira, euren komunikazio asmoa gaiaren inguruko ulermena eta ezagupen maila handitzea baita.

Gaztelaniarako unitatean azalpen testuei dagozkien ezaugarriak landu dituzue.

Izan gogoan hizkuntza batean ikasten dena ez dela bakarrik hizkuntza horretarako, besteetan ere erabiltzeko balio duela. Jakintzak transferigarriak dira.

Orain arte ikasitakoa jasotzeko txantiloia

SEKUENTZIA HONETAN IKASITAKOA JASOTZEKO TXANTILOIA

Hizkuntzaren erabilpen eremuak hauek dira:

.....
.....
.....
.....
.....


Nire informazio- panela, hizkuntzaren erabilpen eremu honetan murgiltzen da.

Hurrengo sekuentzietan ikasiko duzue nola egituratzen, eta gauzatzen den informazio-panela

Zein erabilpen
eremutan hitz
egiten dugu
kontzertuetan?



Eta guk
atsedenaldietan?



2. LAN-SEKUENTZIA INFORMAZIO-PANELAK AZTERTZEN

Era honetako testu generoetan bi alderdi izan behar dituzue kontuan; bata, maketazioa, eta bestea, testu idatzia.

Informazioa helarazteko erabiliko dituzuen baliabideek: grafikoek, marrazkiek, irudiek, zein testu idatziek, informazio panelean kokapen bat izango dute, eta hori izango da, hain zuzen ere, maketazioa egiterakoan zehaztuko dena.

Testu idatziak ere, garrantzia handia duenez, informazio panel baten azalpen idatzia aztertuko duzue. Hortik aterako dituzuen ezaugarri aipagarrienak, zuek egingo duzuen panelean erabiltzeko balioko dizue.

4. jarduera. Informazio-panelen egitura.

Bikoteka saiatuko zarete beheko informazio-panelen egitura ateratzen. Horretarako, irakurri lehenengo informazio panelen egitura aztertzekeo teoria, eta gero, beheko txantiloia beteko duzue. Oraingoan kanpoko egitura baino ez zaigu interesatzen.

Paneletan marrazkiak, irudiak, eta testu idatziak agertuko dira, eta horietako bakoitzak funtzio bat du. Adibidez: Informazio linguistikoa, idatziz datorrena, paragrafoetan bananduta agertuko zaizue eta testuko informazioa antolatzekeo balio izango du. Paragrafo bakoitzak ideia bat garatzeko balio izango du; horregatik aurkituko dugu bat, sarrerarako, beste batzuk informazio garatzeko eta azkena, ondorioak ateratzeko.

Informazio ez linguistikoak, grafikoak, eskemak, marrazkiak, letra tamaina, letra tipoa, direla medio, berriz, informazioa zehazteko, gehitzeko edo apaintzeko balio izango du.

Testuak	Informazio linguistikoa Testu idatzia		Informazio ez linguistikoaren funtzioa					
	Informazioa antolatzea		- Informazioa zehaztea - Informazioa gehitzea - Apaintzea					
	Nola dago antolatuta?	Zer garatzen da paragrafo bakoitzean?	Grafikoak	Marrazkiak	Irudiak	Eskemak	Letra tipoa	Letra-tamaina
1.								
2.								



Sedimentuak eta Ornogabeak

Sedimentos e Invertebrados



Organismo bentonikoak
Organismos bentónicos

Bentosa - Bentos

- Bentosa hondeoi itsatsita edo hondoen barruan (bigunak badira, itsasadarrean bezala) bizi diren organismoek osatzen dute.


Fauna horretako talde berezgarrienak anelidoak, knidarioak, nemertinoak, moluskuak, krustazeoak eta ekinodermoak dira.

- El bentos lo forman los organismos que viven en los fondos, bien fijados a ellos o en su interior, si se trata de fondos blandos como los de la Ria.

Los grupos más característicos de esta fauna son los anélidos, cnidarios, nemertinos, moluscos, crustáceos y equinodermos.

Nemertinoak - Nemertinos

- Lokatzetan, harrien azpian edo molusku, alga eta abarren hondar artean bizi diren zizare zapalak dira. Haragijaleak dira, eta poliketo txikiak eta beste ornogabe batzuek elikatzen dira. Estuario osoan zehar aurki daitezke. Metro bateko luzera izan dezakete.



Tubulanus polymorphus

- Gusanos aplanados que viven en el fango, bajo piedras o entre restos de moluscos, algas, etc. Son carnívoros, alimentándose de pequeños poliquetos y otros invertebrados. Presentes en todo el estuario. Pueden llegar a medir hasta 1 m de longitud.

Poliketoak - Poliquetos

- Anelidoen (zizareen) taldekoak dira. Itsaso eta estuarioetako sedimentu bigunetako fauna bentoniko ugari eta anitzena dira, espezieen zein banakoen kopuruagatik. Hondotan bizi diren arrainen eta beste zenbait organismoen janari iturria dira.

Zizare hauek berdin-berdinak diren hainbat segmentu zilindrikoz osaturik daude. Segmentu bakoitzak bi apendize mamitsu ditu, hainbat eginkizunetarako balio dutenak. Gorputzaren zati bat moztzen bazale, birsortu egin dezakete geratu diren ehunak erabiliz.



Sternaspis scutellata

Zenbait espeziek hondoan zehar ibiltzeko ahalmena dute, eta harrapari aktiboak dira. Beste batzuk sedentarioak dira eta sedimentu haretsu edo lohiatsuan zulatutako tunel batean bizi dira. Batez ere jalkinean bertan dagoen detrituz elikatzen dira.

Poliketoak estuario osoan zehar aurki daitezke, baina espezieak desberdinak dira zonaren arabera.



Hediste diversicolor



Nottolus lateralis

- Pertenezten al grupo de los anélidos (gusanos). Es el grupo de fauna bentónica más numeroso y variado que encontramos en los sedimentos blandos marinos y estuáricos, tanto por número de especies como de individuos. Constituyen la fuente de alimento de muchos peces y otros organismos que habitan en los fondos.

Estos gusanos están formados por segmentos cilíndricos idénticos, con un par de apéndices carnosos en cada sección que tienen diversas funciones. Si se les corta una parte de su cuerpo, pueden volver a regenerarla a partir de los tejidos restantes.

Algunas especies tienen capacidad para moverse por encima del fondo, siendo predadores activos. Otras son sedentarias y viven en el interior del sedimento.

arenoso o fangoso, donde excavan un tubo en el que viven. Se alimentan sobre todo del detritus presente en el propio sedimento.

Los poliquetos están en todo el estuario, si bien las especies cambian entre zonas.

Krustazeoak - Crustáceos

- Oso talde anitza da, itsas espezie kopuru handi samarra biltzen baitu. Krustazeoen gorputzak hiru zati ditu: burua, toraxa eta abdomena. Bi antena pare dituzte.

Krustazeo ugarienen artean anfipodoak eta dekapodoak aipatu behar dira.

Anfipodoak ganba itxurako krustazeo nimoioak dira. Itsasadarreko sedimentu lurperatuta bizi dira, baina batzuetan herrestan eta igerian ibiltzen dira hondoan zehar. Usteltzen dagoen materia organikoaz elikatzen dira.



Ampelisca cavaica

Dekapodoen artean, karramarro ermitaua (*Diogenes pugilator*) da arruntetako bat. Bere ezkerreko hagina eskuinekoa baino handiagoa da. Materia organikoaren hondarrak, animalia txikiak edo alga zatiaik jaten ditu. Zenbait moluskuren eskolen barruan bizi da, esaterako karrakelen oskolan. Karramarro hauen abdomena biguna da bihurria da, moluskuaren oskolarra moldatu ahal izateko.

- Grupo muy variado, con bastantes especies marinas. Su cuerpo consta de tres partes: cabeza, tórax y abdomen. Tienen dos pares de antenas.

Entre los crustáceos más abundantes están los anfipodos y los decápodos.

Los anfipodos son pequeños crustáceos con forma de gamba. En la Ria, viven enterrados en el sedimento, aunque ocasionalmente también se desplazan por encima del fondo, nadando y reptando. Se alimentan básicamente de materia orgánica en descomposición.




Diogenes pugilator

Entre los decápodos abunda el cangrejo ermitaño (*Diogenes pugilator*), que vive sobre fondos de arena o fango. La pinta izquierda está más desarrollada que la derecha. Su alimentación incluye tanto restos de materia orgánica como pequeños animales o restos

de algas que encuentra por el fondo. Como los demás cangrejos ermitaños, su abdomen es blando y retorcido para adaptarse a la concha del molusco gasterópodo en el que habitan.

Moluskuak - Moluscos




Aporrhais pespelecani

- Estuarioen hondeotan bizi dira. Nerbioiko estuarioan bi molusku mota daude: bibalbioak, txiren tankerakoak, eta gasteropodoak, karrakela edo maskor handien tankerakoak.

Bibalbioek gorputza lateralki konprimatuta dute eta sedimentuan bizitzeko moldaturik daude. Sifoiak bakarrik ateratzen dituzte kanpora; haien bidez, uretatik alga mikroskopikoak iragazten dituzte. Erdialdeko eta barrualdeko espezieak nolabaiteko kutsadura maila batera eta oxigeno eskasiara egokitu dira.

Gasteropodoak hainbat modutara elikatzen dira, baina guztiek erradula izeneko egitura dute aho barrunbean. Lixa baten modura funtzionatzen du, janaria karrakatz, ebakiz eta ahoaren barrualdera eramanez.



Corbula gibba

- Viven en los fondos del estuario. Los hay de dos tipos: bivalvos, tipo chirla, y gasterópodos, tipo caracolillo o caracola.

Los bivalvos, con su cuerpo comprimido lateralmente, están adaptados para vivir en el sedimento. Únicamente sacan los sifones, por donde circula agua de la que extraen algas microscópicas para alimentarse. Las especies presentes en la zona media e interior se han adaptado a cierta contaminación y bajos niveles de oxígeno.



Tapes decussatus



Scrobicularia plana



Hydrobia ulvae

Los gasterópodos presentan modos de alimentación variados, pero todos poseen una estructura en la cavidad bucal llamada rádula, que actúa a modo de lija, con la que raspan, cortan y transportan la comida hacia el interior.

Ekinodermoak - Equinodermos



Astropecten irregularis

- Itsasoaan bakarrik bizi diren organismoak dira. Talde honetan itsas trikuak eta izarak daude, besteak beste. Abra kanpoaldean bizi dira, eta neurri txikiagoan, Abra barrualdean.


Itsas trikuak hondo harritsueta edo hondo bigunetan bizi daitezke. Hondo bigunetakoek bihotz itxura dute eta harean lurperatuta bizi dira, 10-15 zentimetroko sakoneran. Detritiboroak dira: sedimentuetan dauden materia organikoaren hondarrak jaten dituzte.



Echinocardium cordatum

- Son organismos exclusivamente marinos. Este grupo incluye, entre otros, a erizos y estrellas de mar. Habitan en el Abra exterior y, en menor medida, el Abra interior.

Hay erizos de mar de fondos rocosos y de fondos blandos. Los de fondos blandos tienen forma de corazón y viven enterrados en arenas, a unos 10-15 cm de profundidad. Son detritívoros: comen restos de materia orgánica presentes en los sedimentos.



7. testua

CHITOSAN AS A POTENTIAL FOOD PRESERVATIVE FOR LIGHTLY PROCESSED FISH

Cruz Z.¹, Nuñ M.¹, Peral I.¹, Arboleya J.C.¹

¹ - AZTI - Fisheries and Food Technological Institute - Food Research Division - Sukarrieta, Bizkaia (Spain)

* If you are interested in this subject or in receiving more information please contact with us at azti@azti.es or visit our web site www.azti.es



AZTI (Basque name)
Technalia (Spanish name)
AZTI (Basque name)
Technalia (Spanish name)

INTRODUCTION

Chitosan has been considered a potential novel food preservative due to its good film forming properties, biodegradability, non-toxicity and capacity to inhibit the growth of several bacteria and fungi on in vitro trials. However, most foods consist of mixtures of different compounds that could interact with chitosan leading to loss of antimicrobial activity compared to in vitro tests [1].

Most functional properties and antimicrobial effectiveness of chitosan depend on factors such as degree of acetylation, chain length and concentration of the polymer, pH, temperature, microbial strain and characteristics of food products. Therefore, the success of its application will be a result of an appropriate combination of all these parameters.

Salt-cured and dried salt-cured cod (*Gadus morhua*) are highly appreciated products due to their high nutritional value, highly accepted taste and long shelf life. The main inconvenience is that salted cod requires a desalting process of app. 24 hours before being cooked, a fact that goes against the present trends of reducing elaboration times. The consume of ready-to-use desalted cod is increasing in the last years but the fast spoilage of this product, mainly due to microbiological and sensory spoilage, limits its shelf life [2].

In order to prolong shelf life of desalted cod and therefore, allow a longer commercialisation period, suitable preservation methods that reduce the microbial growth must be found.



OBJECTIVE

The aim of this preliminary work was to study the antimicrobial activity of several chitosan coatings along with its effects on sensory quality and biochemical changes on desalted cod fillets.

MATERIALS AND METHODS

Raw material:

Desalted cod portions (*Gadus morhua*) from the same batch and with similar size (25-30g) were obtained from a local retailer. The desalting process was developed according to the traditional method at room temperature.

Chitosan coatings:

Two types of commercial food grade chitosan were used to prepare the coatings. Both had a high deacetylation degree (DD) and low viscosity, a combination that appears to be very favourable for the antimicrobial activity.

	DD (%)	Viscosity (cP)
Low Viscosity Chitosan (LVC)	>95	25
Ultra Low Viscosity Chitosan (ULVC)	>95	10



A high deacetylation degree allows a better interaction between positively charged chitosan molecules and negatively charged microbial cell membranes that leads to the leakage of intracellular constituents [3, 4, 5] and the low viscosity enhances the solubility of the chitosan.

Eight different types of coatings were obtained by dissolving chitosan in an aqueous acid solution of acetic (0.5 %) or lactic acid (1%) with intense stirring at 40°C. The final concentrations of chitosan dipping solutions were 1% and 2% (w/v). Chitosan and solvents controls were also prepared. The microbial load of all the coating solutions was analysed to avoid any possible contamination of the raw material.

Procedure:

Portions of desalted cod supplied by the local retailer were dipped in the different coating solutions. Once the portions were completely coated, desalted cod samples were drained and stored for 12 days at 4°C.

ANALYSIS

Physicochemical analysis:


Measurements of pH, NaCl content, Water Activity (Aw) and Total Volatile Base Nitrogen (TVBN).

Microbiological analysis:

Aerobic plate count (APC), Enterobacteria and moulds and yeasts counts as spoilage organisms.

Sensory analysis:

Descriptive analysis of colour and odour development and general appearance.



RESULTS AND DISCUSSION

None of the coatings seem to have any antimicrobial effect on the desalted cod samples; however, the sensory quality of the chitosan treated samples was considered higher compared to the controls. Off-odours and darkening of the fish meat were noticed an earlier stage of the storage in the non-treated cod samples. There was no significant difference between the type of chitosan or the solvent used in the coatings regarding the sensory quality.



Control samples (left) and chitosan-coated samples (right) after 12 days of storage at 4°C

The suitability of chitosan as a food preservative depends on the kind of chitosan used and the matrix in which is dissolved. The antimicrobial effect is higher at low pH (pH 6.3 or lower) and it has been reported [4] that at pH 7 chitosan was no longer bactericidal due to the presence of a significant portion of uncharged amino groups and the poor solubility of chitosan. The initial pH of the coated cod samples was between 6.7 and 7 and increased to 7.4 during the storage. These high pH levels might have resulted in the reduction or inhibition of the antimicrobial activity of the chitosan coatings.

Besides the pH, the antimicrobial activity of chitosan is very dependent on the food matrix. The initial bacterial count in the raw material was high (10⁶ cfu/g) and after one day of cold storage, all the treated samples reached a microbial load higher than 10⁴ cfu/g. A level of aerobic mesophilic bacteria higher than 10⁴ cfu/g can be considered the beginning of decomposition of the fish [6]. This initial bacterial count might have been too high for the chitosan to exert its antimicrobial action against microorganisms. Preservation could not compensate for poor hygienic conditions or high temperature during desalting.

Further Work:

Future experiments will be focussed on the desalting process carried out at low temperature (4 °C). Initial hygienic conditions will be analysed and preserved in order to ascertain the effect of chitosan solutions on microbial growth.

Since each food component can interact with chitosan and therefore, inhibit or increase its antimicrobial efficiency, the influence of different components (fat, salt, proteins...) separately will require further investigations.

REFERENCES

1. -Roller S. and Crell R. (1988). "The antifungal properties of chitosan in laboratory media and apple juice." *International Journal of Food Microbiology* 47 (1-2): 47-77.
2. -Aas, L. and Jonsson, S. (1996). "Desalting of wet salted cod, effect of the freshness of the raw material." Report series from the Norwegian Institute of Fisheries and Aquaculture 26.
3. -Papadimitrakia, A. M., Hoover, D. G., Kwon, D. and Park, G. P. (1991). "Antimicrobial effect of water-soluble chitosans with high hydrostatic pressure." *Food Biotechnology* 5: 45-57.
4. -Sethuraman, N. R., Hoover, D. G., and Kwon, D. (1992). "Antimicrobial Action of Chitosan." *Food Biotechnology* 5:257-272.
5. -Chen, C. G., Liu, W. Y., and Tai, G. J. (1996). "Antibacterial Effects of N-Sulfonyl and N-alkylbenzyl Chitosan and Application to Oyster Preservation." *Journal of Food Protection* 49: 1124-1129.
6. -Pasqual, M. and Cordero, V. (2000). "Recuento de microorganismos aerobios mesófilos viables." In *Microbiología Alimentaria*. Madrid, Spain: Ed. Díaz de Santos pp. 13-5.

5. jarduera. Informazio-panelaren testu idatzia aztertzen.

Oraingo honetan, testu idatzia hartuko duzue aztergai. Horretarako 6.testua erabiliko duzue, eta hango testu idatziari erreparatuz, saiatuko zarete azalpen horren ezaugarriak ateratzen. Lan hori burutzeko, ondoko behaketa txantiloia lagungarri izango zaizue. Bikoteka, behaketa egiteko txantiloia osatu.

BEHAKETA EGITEKO TXANTILOIA

Informazio panel horren xedea zein da?

- ☐ Iritziak adieraztea
- ☐ Jakintza baten inguruko ezagupen maila handitzea
- ☐ Gertakizun bat kontatzea

Zein da informazio panelean jorratzen den gaia?

.....

Informazio panelaren gaia nabarmendurik agertzen da?

- ☐ Bai
- ☐ Ez

Nola?

- ☐ Letra motaz (normala, lodia, etzana)
- ☐ Letra tipoz
- ☐ Tituluaz
- ☐ Letra tamainaz

Azalpen idatziaren edukia, nola dago ordenatuta?

.....

Atal bakoitza, nola nabarmentzen da?

.....

Atal bakoitzean, zein puntuazio-marka erabiltzen da?

.....

.....

.....

.....

Aukeratu

Perpaus baten bukaera markatzeko, honek aurreko perpausarekin segida estua baldin badu

- ☐ Puntu eta jarraia
- ☐ Puntu eta aparte

Progresioan pauso berri bat ematen denean, hau da, paragrafo berri bat sortzen denean.

- ☐ Puntu eta jarraia
- ☐ Puntu eta aparte

Enumerazioei sarrera egiteko

- ☐ Bi puntuak
- ☐ Koma

Esaldi bat argitu edo osatzeko, tartekatzen dena

- ☐ Koma artean
- ☐ Bi puntuen artean

- ✚ **Igorlearen markarik ageri da?** (laukian agertzen diren pertsona-markak kontuan hartuz, jarri gurutzea dagokion laukian).

	Bai	Ez
Pertsona izenordainak? Ni/Gu, Neu/Geu		
Izenlagunik? (Noren kasuan deklinaturiko pertsona izenordainak) Nire/Neure; Gure/Geure		
Lehen pertsonaren marka daramaten aditz jokaturik? Naiz/dut/zait/diot ...		

- ✚ **Hartzailearen markarik ageri da?** (laukian agertzen diren pertsona-markak kontuan hartuz, jarri gurutzea dagokion laukian)

	Bai	Ez
Pertsona izenordainak? Hi/Heu; Zu/Zeu; Zuek/Zeuk		
Izenlagunik? Noren kasuan deklinaturiko pertsona izenordainik? Hire; zure/zeure; zuen/zeuen/eure;		
2. pertsonaren marka daramaten aditz jokaturik? Haiz/duzu/zaizue/dizut		

- ✚ **Zein hitz mota agertzen da, gehien bat?** (jarri borobil batean erantzun zuzena)

Izena, izenondoak, aditzak, aditzondoak ...

- Hitz horiek arruntak edo teknikoak dira?

- ✚ **Jakintza eremu bati lotuak daude?**

- o Bai
- o Ez

- ✚ **Zein da jakintza eremu hori?**

- Aditzari erreparatzen badiozu konturatuko zara aditz jokatuak agertzen direla gehien bat, baina:

- ✚ **Zenbatgarren pertsonan agertzen dira jokaturik?** (jarri adibideak)

- ✚ **Zein denboratan agertzen dira?**

- Perpausei erreparatuz gero, konturatuko zara perpaus bakun atributuaz gain, erlatibozkoak ere askotan agertzen direla.

Jo informazio panelera, eta saiatu aurkitzen era horretako esaldiak, eta azaltzen zertarako balio duten (Bete laukiko hutsuneak , eta /edo aukeran ematen direnak, aukeratu).

	Adibideak	Zertarako balio dute?	Nola daude osatuta?
Perpaus bakun atributuak	1. "Poliketoak Anelidoen taldekoak dira" 2. 3. 4.		
Perpaus elkartuak Erlatibozko esaldiak	1. "Bentosa hondoei itsatsita edo hondoan barruan bizi diren organismoek osatzen dute". 2..... 3..... 4.....	-Definizioak emateko -Azalpenak emateko -Informazioa gehitzeko - ...	

✚ Testu osoko nahiz paragrafo bakoitzaren barruko ideiak edo esanahiak elkarrekin lotu eta erlazionatzeko testu antolatzaileak erabiltzen ditugu.

Aurkitu adibideak informazio-panelean, eta kokatu dagokien tokian betetzen duten funtzioa kontuan hartuz.

- o Adibideak emateko:
- o Informazioa gehitzeko:
- o Aurkaritza, oposizioa adierazteko



Orain, banan-banan, batu duzuen informazioa ondoko txantiloian bilduko duzue.

Informazio panelaren Azalpen idatziaren kontrol txantiloia

- + Informazio panelaren xedea jakintza baten inguruko ezagupen maila handitzea da.
- + Informazio panelean jorratzen den gaia, eta azpi-gaiak nabarmentzeko erabiltzen diren elementu tipografikoak hauek dira:
 - 1.
 - 2.
 - 3.
- + Testu idatziaren paragrafoak mugatzeko, zein paragrafo barruko ideiak bereizteko, erabiltzen diren puntuazio-markak hauek dira:
 - 1. Paragrafo batetik bestera igarotzeko:
 - 2. Paragrafoan, aurreko perpausarekin segida estua duen perpaus baten bukaera markatzeko:
 - 3. Enumerazioei sarrera egiteko:
- + Testu osoko nahi paragrafo bakoitzaren barruko ideiak edo esanahiak elkarrekin lotu eta erlazionatzeko testu antolatzaileak erabiltzen ditugu. Ondoko hauek ditugu
 - o Ideiak gehitzeko:
 - o Adibideak emateko:
 - o Aurkaritza, oposizioa adierazteko:
- + Testuan ez da agertzen igorleari zein hartzaileari erreferentziarik egiten dion pertsona deiktikorik.
- + Azalpen idatziko aditzak era jakatuan agertzen dira
 - pertsonan datoz
 - aldian agertzen dira
- + Azalpen testuetako lexikoa teknikoak izaten da. Jakintza eremu bati lotutako hitz zientifikoak agertzen dira
 - o Hitz teknikoek askotan azalpenak eskatzen dituzte. Azalpen horiek, definizioz, erlatibozko esaldiz, zein adibideen bidez ematen dira.

Txantiloia hau baliagarria izango zaizue zuen informazio panelaren testu idatzia burutzeko.

3. LAN-SEKUENTZIA

INGURU HURBILEKO HIZKUNTZA-ERREALITATEA

Galdetegi baten bidez zeuen eskolako egoera soziolinguistikoa aztertuko duzue, zuen inguru hurbileko hizkuntza errealitatea ezagutzeko. Behaketa egin ondoren, eskolako egoera soziolinguistikoa zein den jakinda jarrera bat har dezakezu.

6. jarduera. Eskolako hizkuntza-errealitatea aztertzen.

Hizkuntza bat erabiltzeko beharrezkoa da hizkuntza hori jakitea, noski. Baina hizkuntza bat ezagutzeak ziurtatzen al du bere erabilera?

8. testua

Euskarak egiten gaitu euskaldun; euskara, euskaldunon hizkuntza da. Baina... euskara al da euskaldunon hizkuntza bakarra? Gaztelania eta frantsesa ere ez al dira euskaldunon hizkuntzak? Eta ingelesa? Eta munduko gainerako hizkuntzak?

Euskara, gaztelania, frantsesa... elkarrekin bizi dira gure inguruan, gure baitan. Aniztasun horrek aberasten gaitu, dudarik gabe, baina, aldi berean, hainbat gorabehera ere sortzen digu. Hizkuntza bakoitzaren ezagutza mailak, erabilera aukerak, legeko egoerak, hizkuntza horiekiko jarrerak eta ohiturek... badute eraginik elkarbizitza horretan.

Zuen eskolako egoera soziolinguistikoa aztertzeko ondoko galdetegiaz baliatuko zarete.

Taldeka bilduko zarete eta talde bakoitzak ikastetxeko ikas maila bat hartuko du ikertzeko. Denon artean, ikastetxeko maila guztietan laginak hartuko dituzue, eta maila bakoitzean, ikaslearen ama-hizkuntza kontuan hartuta, bakoitzetik, gutxienez, lau lagina.


Galdetegiaren ardatza hau litzateke; ikasle bakoitzaren ama hizkuntza oinarritzat hartuta, aztertuko litzateke ikasle horrek zein hizkuntza erabiltzen duen erabilera esparru bakoitzean.

Galdetegia: zeuen hizkuntza erabilpena zenbait komunikazio egoeratan.

Ikaslearen izena							
Ama hizkuntza	Erabilera esparruak						
	Lagun artean	Eskolan	Etxean	Dendetan	Administrazioarekiko harremanetan,	Telebista ikustean	Musika entzutean
Euskara							
Gaztelera							
Beste bat							

Datuak jaso ondoren, talde handian bilduta, eta denon artean, datuen bilketarako txantiloian, datuak biltzen saiatuko zarete.

Jatorrizko talde bakoitzak, talde handian egiten diren ekarpenak, biltzeko taulan jasoko dituzue. Txantiloia hori gorde taldeka, gero ondorioetara heltzeko ezinbestekoa egingo zaizuelako.



Datuak jasotzeko txantiloia.

[illegible]

Behaketa egin ondoren, ondorioak ateratzeko unea heldu da.

Lehenengo talde txikian aterako dituzue ondorioak, eta gero, denok bilduta, gelako ondorioak ateratzeko txantiloia egingo duzue. Horretarako erabili ondoko txantiloia.

Ondorioak ateratzeko txantiloia.
Nire eskolako egoera soziolinguistikoa hauxe da:
- Nire eskolako ikaskideak: - Elebakarrak dira. - Elebidunak dira. - Eleanitzak dira.
- Erabilpen eremua kontuan hartuta esan daiteke gehien erabiltzen duten hizkuntza, beraz, euren hizkuntza nagusia: - Euskara - Gaztelera - Frantsesa - Beste hizkuntzaren bat dela
- Erabilpen eremua kontuan hartuta esan daiteke gutxien erabiltzen den hizkuntza, beraz, euren hizkuntza txikia: - Euskara - Gaztelera - Frantsesa - Beste hizkuntzaren bat dela
Hizkuntza baten egoera soziolinguistikoa neurtzeko ondoko parametroa hauek hartzen dira kontuan: - Hizkuntzaren ofizialtasuna - Administrazio eta zerbitzu eremuetan duen erabilera - Eskola eremuan duen erabilera - Komunikabideetan duen erabilera - Transmisioa Badakigu hizkuntza bat normalizaturik dagoela bizitzako arlo guztietan agertzen denean. Hori horrela dela, goazen zuen eskolako hizkuntzen normalizazio prozesua neurtzera. Zuk zenbait eremutan zeure eskolako hizkuntzak erabiltzen dituzu. Erabilera kontuan hartuta, esan dezakezu. normalizatua dagoela. normalizatzeko bidean dagoela normalizatzeko abagunerik ez duela.

Denon artean lortu duzue jakitea zein den zuen eskolako egoera soziolinguistikoa.
Orain zuetariko bakoitzak bere hausnarketa egiteko beste datu ditu.
Jaso testu idatzian egindako hausnarketa. Saiatu ideiak argi eta txukun adierazten,
taldekideen artean egokiena aukeratuko baituzue, informazio-panelean ipintzeko.

Nire eskolako egoera soziolinguistikoa

Orain arte ikertzailearen paperean sartuta, zuen eskolako egoera soziolinguistikoaren datu objektiboak hartuta, ondorio batzuetara heldu zarete.

Orain, bakoitzak egoera horren aurrean izan dezakeen jarrerari buruzko hausnarketa egiteko, ondoko taula erabiliko du.

Jarri gurutze bat dagokion zutabearen azpian

	Bai	Ez
Euskara geure hizkuntza bada, eta mendez mende bizirik iraun izan badu, geure arbasoek euren ondorengoei hizkuntza eta mundua ikusteko eta aztertzeko era, hau da , euskal kultura transmititu dietelako izan da.		
Gure aurrekoek galdu ez duten altxorra guk geuk galduko dugu?		
Geure hizkuntza eta kultura bizirik irauteko gai izango gara		
Geure ondorengoei altxor hau pasatuko diegu		



7. jarduera. Euskararen egoera.

Jarduera honen bitartez saiatuko zarete aztertzen euskararen egoera historian zehar. Irakurri ondorengo testua eta azpimarratu ideia nagusiak.

9. testua

Euskarak hainbeste mendetan gaurdaino iraun badu eta Europako hizkuntza zaharrena izatera iritsi bada, hain une historiko desberdinetan eta hain baldintza zailetan iraun badu, zerbaitek eraginda izan da. Aldagai objektiboak beharko dira, baina gurea baino askoz ere egoera hobea zuten herriek galdu egin zuten beren hizkuntza (hititera, sumeriera, koptoera, latina...). Ez da izan, ezta ere, bakartuta bizi izan garelako, ez baikara bakartuta bizi izan, beste hizkuntza eta kulturekin harremanetan baizik. Adibidez, iraunkortasunezko harremanetan bizi izan gara, latina, hebraiera, arabiera, erromantzea, gaztelania, frantsesa, gaskoia hitz egiten zutenekin, eta Euskal Herria iraganbidea izanik, harremanak izan ditugu era guztietako hiztunekin, besteak beste Done Jakueren bideko hainbat naziotako bidaiarirekin. Bizirik irauteko gakorik eraginkorrena norberaren izatean konfiantza izatea da, zarenaren kontzientzia eta taldearen kontzientzia izatea eta horrekin pozik eta harro egotea.

1. Esan egia ala gezurra diren ondoko esaldiak, eta eman arrazoia testuan zure erantzunaren zergatia bilatuz.

- Euskarak gaurdaino iraun du bakartuta bizi izan delako.
- Euskara beste hizkuntza eta kultura batzuekin iraunkortasunezko harremanetan bizi izan da.
- Euskal Herria iraganbidetik urrun dagoenez, ez du beste eratako hiztunekin harremanik izan.
- Hititera, sumeriera, koptoera, eta latina dira munduko hizkuntzarik zaharrenak.

2. Zein garaitakoak dira sumeriera eta hititera?

3. Zeintzuk dira euskarak bizirik irauteko behar dituen gakorik eraginkorrenak?

Bildu lauki honetan testu honetan azaltzen diren ideia nagusiak, eta gero gorde Informazio-panelean jartzeko. Lan hau, irakasleak jasoko du orain arte ikasitakoa ebaluatzeko.

Testuko ideia nagusiak hauek dira.

1.

2.

Geurera bueltatuz, euskararen normalizaziorako bidean, ekimen eta baliabide batzuk ematen ari dira, eta beste batzuk eman beharko dira.

Saia zaitezte, lehenengo binaka, eta gero talde handian, aldagai objektiboen taula osatzen.

Beheko koadroan euskaraz edo euskararen alde agertzen diren ekintza batzuk daude. Gehitu bururatzen zaizkizuen beste batzuk, eta gero, sartu hurrengo koadroan dagokien lekuan.

Ulibarri programa / euskal irratia / euskal telebista / Argia aldizkaria Berria egunkaria / testu liburuak / ikastetxeko dokumentuak / Euskaltzaindia / ikasmaterialak / Euskal musika / irakasleen hizkuntza-prestakuntza / materialgintza / eskolako barne informazioa / eskolak erakundeekin dituen harremanak /

.....
.....



Erabilera esparrua	Zer egiten ari da?	Zer dago egiteko?
Eskolan		
Komunikabideetan		
Administrazioan		
Zerbitzuetan		
Transmisioan (Gurasoak / semeei) lagun artean		

8. jarduera. Informazioa jasotzen.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (2005-2009)-rako dituen xedeak eta ildo estrategikoen artean, euskara normalizatzeko hartu dituen konpromezuak aurkitzen ditugu.

10. testua

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (2005-2009)-rako dituen xedeak eta ildo estrategikoak

Euskara biziberritzeko ahalegin handiak egin dituzte herri-agintek eta gizarteak azken hogeita bost urte hauetan. Aldaketa nabarietako bat hiztunen kopuruan izandako hazkuntza da: euskara dakigun herritarrok bostetik bat izatetik hirutik bat izatera pasatu gara. Gainera, proportzio hori arrunt handitzen da gazteen artean (gaur egun unibertsitate-ikasketak egiten hasten direnen artean gehiago dira euskaldunak euskaraz ez dakitenak baino). Horrek berak nahitaez euskararen prestigio sozialaren alde egingo du etorkizun hurbilean.

Era berean, euskarak eremu eta maila berriak irabazi ditu eta euskararen erabilera hedatzen ari da etxeetan, gizartean, komunikabideetan, administrazioan, merkataritzan, lan munduan eta abarretan. Erabilera-esparru batzuetan ere onera egin du nabarmen euskarak: hezkuntzan batez ere, baita administrazioan eta hedabideen esparruan ere, zeresanik ez literaturgintzan. Baina badakigu, halaber, esparru ez formaletan, nola lagunartean hala lan-munduan, nola aisialdian hala familia giroan, askoz motelago doala gorantz erabilera.

"Hizkuntza Politika Aurrera Begira (2005-2009)" dokumentu honen bidez, erabileran aurrera egiteko konpromisoak aurkeztu nahi ditu HPSk. Gure irudiko, herritarren hizkuntz kontzientzia, inplikazioan eta konpromisoan eragitean dago koska. Politikak, legeek eta

administrazioak gauza asko dituzte egiteko, baina erabakigarria gutariko bakoitzak euskarari diogun leialtasuna da. Horren harira, funtsezkoa izango da euskara erabiltzeko gai direnen inplikazioa indartzea, beren hizkuntzarekiko lotura eta auto--estimua indartuz, euskararen lehentasunezko erabilera sustatuz eta euskararen erabilera hegemonikoa izango duten guneak sortuz. Eginbide horretan, baita ere, ezinbestekoa izango da erdal komunitatearen inplikazioa bilatzea.

Hala, gizarte bizitzan euskararen presentzia areagotu dadin, zenbait jardunbide prestatu ditugu. Lehenik eta behin, euskararen presentzia esparru formalean nahiz informalean indartu behar dugu, hala nola, lan munduan, teknologia berrietan, aisialdian (euskarazko kultur merkatua trinkotuz eta prestigioa emanez) eta administrazio barruan -euskara lan hizkuntza izatea lortu behar dugu-.

Aldi berean, helduen euskalduntze-alfabetatzeak etengabe aldatzen ari den gizartearen behar berrietara egokitu behar du: inmigrazioa, lan mundurako glosarioak eta material bereziak. Euskara normalizatuaren eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin, bestalde, hausnarketa egin eta kaleko erabilerari berebiziko arreta eskaini beharko zaio.

Horrez gain, euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak eskaintzea eta herritarren hizkuntz eskubideak babestea herri-aginteen ardura denez, hizkuntz eskubideak babesteko zerbitzua eratuko da. Izan ere, badirudi bi hizkuntzak eskaintzen dituenari obligazioak bikoiztu egiten zaizkiola; eskubideak, ordea, erdibitu. Zerbitzu honek egiteko bikoitza izango du: alde batetik, herritarren hizkuntz eskubideak babestea, eta, bestetik, hizkuntz eskubideen urraketak gainditzeko laguntza eta aholkularitza eskaintzea.



Informazio jasotzen

Testuak ematen digun informazioa baliagarria izango zaizue Informazio-panelean jartzeko. Ikusita testua paragrafotan sailkatuta dagoela, binaka har ezazue testuaren egitura, hau da, paragrafo bakoitza, eta saia zaitetze ideia nagusiak ateratzen.

	Galdetegia	Idea nagusiak
1. Paragrafoa	* Zenbat urte daramate herri-aginteeak eta gizarteak euskara biziberritzeko ahaleaginean? 25 urte daramate * Euskarak izan dituen aldaketak zeintzuk dira? 1. 2.	+ Euskararen biziberritze ahaleaginean 25 urte daramagu. +
2. Paragrafoa	*Zeintzuk dira euskarak irabazi dituen erabilera eremuak?	+
3. Paragrafoa	*Zer egin behar du Politikak, legeek eta administrazioak euskara dakitenen inplikazioa indartzeko?	+
4. Paragrafoa	*Gizarte bizitzan non indartu behar da euskararen presentzia?	+
5. Paragrafoa	*Zer egin behar da euskara normalizatua eta kaleko euskararen artean etenik gerta ez dadin?	+
6. Paragrafoa	*Zein da herri-aginteen ardura? *Zer eratuko da egin behar horretarako? *Zein izango da zerbitzu horren egitekoa?	+ + +

9. jarduera. Azalpen testuei dagozkien ezaugarriak gogoratzen.

Gogoratu gaztelaniarako unitatean azalpen testuei buruz ikasitakoa eta ikus ezazu ezaugarri horiek goiko testuan ematen diren. Horretarako, erabili, azalpen testuei dagozkien ezaugarriak aztertzeke txantiloia.

1. Zein da testuaren helburu orokorra edo komunikazio-asmoa?

- Hizkuntza politikarako Sailburuordetzak euskara berreskuratzeko jorratuko dituen lan-ildoak azaltzea?
- Biziberritze Plan Nagusiak sei urteko ibilbidean egindakoaren ondorioak azaltzea
- Euskararen erabilpen eremuen hedapenaren hurrenkera azaltzea

2. Igorleak hartzaileak baino gehiago edo gutxiago daki?

- Gehiago
- Gutxiago

3. Testua idatzita dago:

- Orain aldian // Lehen aldian
- Indikatibo eran // Subjuntibo eran
- Lehenengo pertsonan // 2. pertsonan // 3. pertsonan

4. Agertzen den hiztegia da:

- Lagun-artekoa
- Arlotea edo arrunta
- Jantzia, teknika

5. Ematen den informazioa paragrafoetan antolatuta dagoela esan daiteke?

- Bai
- Ez

6. Paragrafoen hasieretan, sarri asko, era honetako hitzak aurkitzen ditugu:

Era berean

Aldi berean

Horrez gain

Hitz horiek testu antolatzaileak dira, baina zertarako balio dute?

- ✓ Ordena adierazteko
- ✓ Ideiak gehitzeko
- ✓ Adibideak emateko
- ✓ Birformulatzeko

4. LAN-SEKUENTZIA

ESKOLAKO HIZKUNTZAK: ZER DAKIT EURETAZ?

Aurreko sekuentzian zuen inguru hurbileko hizkuntza errealitatea aztertu duzue. Bertan, esan duzue zeintzuk diren hizkuntza horiek, zein erabilera eremutan erabiltzen dituzuen, zein den normalizatzeko bidean dagoena. Orain, hizkuntza horiei buruzko informazioa eskuratuko duzue: jatorria, hizkuntza familia, hedapen geografikoa, hiztunen kopurua ...

10. jarduera. Zer dakit eskolan mintzatzen diren hizkuntzez?

Jarduera honen bitartez ondorengo galderei erantzuten saiatuko zarete.

Baina, **zer dakizu eskolan mintzatzen diren hizkuntzez?**

Galdera horri erantzuteko, hirunaka bilduta, bi ekintza burutuko dituzue.

- Lehenengoan, txantiloia honetan agertzen diren galderei erantzuten saiatuko zarete, eta bigarrenetan, eskolako hizkuntzen hedapen geografikoa mapetan irudikatuko duzue.
- Emandako erantzunak baieztatzeko edo erantzunik gabe geratu direnei erantzuna aurkitzeko, jo beheko helbideetara. Taldekako lana bete ondoren, talde handian saiatuko zarete denon erantzunekin eta mapekin behin-betikoak egiten.

Jarduera honetan ikertzaile gisa jokatu duzue. Ikerketaren ondorioz zuenganatu dituzuen jakintzak neurtzeko ebaluaketa-txantiloia emango dizuegu, bakoitzak neurtzeko zenbat ikasi duen.


Material osagarriak.

http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/euskalkiak/eu_7405/euskalkiak.html
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskara>
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Batua>
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Euskalki>
http://eu.wikipedia.org/wiki/Hizkuntz_errromantze
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Espainia>
http://eu.wikipedia.org/wiki/Kategoria:Hizkuntza_germanikoak
<http://eu.wikipedia.org/wiki/Bizkaiera>

Behaketa-txantiloia

Galderak	Euskara	Gaztelania	Frantsesa	Ingelesa	
Zein gune geografikotan mintzatzen da?					
Zenbat hiztun ditu?					
Zenbat estatutan mintzatzen da?					
Estatu horietan zein hizkuntza gehiago mintzatzen dira?					
Horietatik zeintzuk dira ofizialak?					
Zein da hizkuntza horren jatorria?					
Zein hizkuntza-familiatan kokatuko zenuke?					
Noiz arautu zen?					
Eredu estandarra baino ez dago? Esan zeintzuk diren besteak.					

a. Margotu mapa batean zuen eskolako hizkuntzen hedapen geografikoa. Hizkuntza bakoitza kolore baten bidez adierazi



b. Margotu euskalkien hedapen geografikoa, eta kokatu zeuena dagokion inguruan. Euskalki bakoitza kolore baten bidez adierazi.



Hausnarketaren ostean ondorioak ateratzeko unea heldu da. Horretarako, ondorengo txantiloia erabili irakaslearen laguntzaz. Beheko galdera edo baieztapenen adibiderik aurkitzen baduzu, esan nahiko du egia direla.

Ondorioak ateratzeko txantiloia

📌 Hizkuntza bateko hiztunak zenbatzeko estatuak hartu behar dira aintzakotzat ala hizkuntzaren hedapen geografikoa?

Adibidez,

📌 Hizkuntza ofizialak goi-mailako komunikazio-funtzioetara iristen dira , ofizialak ez direnak, aldiz, behe-mailakoetara, hau da, familia edo lagun arteko eremuetara .

Adibidez,

📌 Estatuko hizkuntzek, hau da, hizkuntza ofizialek hiztun gehiago dituzte.

Adibidez,

📌 Giza taldeek hizkuntza ofizialaz gainera, euren komunikazio harremanetarako beste hizkuntza bat erabiltzen dute.

Adibidez


📌 Estatuen errealitate soziolinguistikoa ikusiz esan daiteke eleaniztasuna nagusia dela, beraz, ondorengo esaera "Estatu bat hizkuntza bat" suntsitzen da.

Adibidez,

Zuen eskolako hizkuntzez ikasi duzuen, eta ikasketa horretatik atera dituzuen ondorioak biltzeko momentua heldu da. Orain, banaka, informazio garrantzitsu hori jasotzeko, testu laburra idatziko duzue, gaztelaniarako erabili duzuen kontrol-zerrendaz baliatu.

Gorde ekoizpen horiek gero informazio-panelean erabiltzeko.

Nire eskolako hizkuntzez ondoko hau dakit	
Ondorio hauetara heldu naiz	
1.	
2.	
3.	
4.	



11. jarduera. Euskararen bilakaera.

Eskolan erabiltzen ditugun hizkuntzetatik, euskara hartuko dugu aztergai Informazioa, idatziz nahiz ahoz jakinaraz daitekeenez, kanal bakoitzetik testu bana aukeratuko dugu, eta saiatuko zarete horietan agertzen den informazioa; ulertzen, jasotzen eta ordenatzen.

11.1 Testu idatziarekin hasiko zarete

Lehenengo, testua irakurri baino lehen, fija zaitezte nola dagoen antolatuta informazioa, gero, irakurri testua, eta begiratu zein irizpide erabili izan den ideiak antolatzeko,

11. testua

Euskara da hizkuntza indoeroparrek hego-mendebaldera zabaldu aurreko bizirik mantendu den Europako antzinako hizkuntza bakarra. Hau da, Neolitikoan, K.a. 2000 urte inguruan, Pirineo bi aldeetara zabaldutako biztanleek mintzatzen zuten hizkuntza. Euskararen jatorri genetikoari buruz, berriz, ez dago oraindik gauza argirik. Erabilitako hipotesietan bat bera ere ezin da frogatutzat eman; ez eusko-iberiar; ez, eusko-kaukasiar; ez, eusko-berberiar ezta ere beste hainbat iritzi.

Jatorri genetikoa argitu ez bada ere, giza historiak berekin izan ohi duen harremanen ondorioz, euskara ez da hizkuntza isolatua izan. Gogora dezagun antzinatean euskarak hiltun-multzo zabala izan duela euskararen lurraldean; oro har, Kantabria mendikate eta Duero ibaiaren iparraldetik Garona ibairaino eta Pirineoetan, Kataluniako lurretaraino. Aurkitutako lehen hitzak Akitaniako hilarri batean aurkitutakoak izan daitezke.

Euskarak inguruko hizkuntzekin milaka urteko harremana izan du; hasieran, Iberiar penintsulako hizkuntz eta Europa Iparraldeko hizkuntza indoeuroparrekin. Erromatarrek Euskal Herrira etorri ondoren eta Kristau Aroa hastean, latinarekin; handik berehala, Erdi Aroko erromantze jaioberriein: okzitaniera, gaskoi, aragoiera, gaztelania eta nafar erromantzearekin; Egun, berriz, gaztelania eta frantsesarekin; eta etorkizun laburrean, agian, ingelerarekin.

<http://www.puntubi.com/testuinguruak/euskara.htm>

Testu bateko ideia nagusiak jasotzeko zenbait estrategia erabil ditzakegu, besteak beste: eduki mapak, eskemak, grafikoak.

Gaztelerako unitatean ideia nagusiak jasotzeko eduki mapen eta eskemen erabilera landu dituzue. Orain, han ikasitakoa praktikan jarriko duzue goiko testuko ideia nagusiak eskema batean jarritz.

Binaka arituko zarete, baina, hasi aurretik, gogoratu kontuan izan beharrekoak.

Lehenengo, testuko informazio garrantzitsuena aukeratu.

Informazioa aukeratzerakoan, kontuan izan itzazue ondoko hauek

Informazioa aukeratzeko jarraibidea

- ✓ Testutik aukeratu garrantzitsuena. Gogoratu paragrafo bakoitzean ideia bat garatzen dela.
- ✓ Baztertu behar ez den informazioa: bitxikeriak, datu zehatzak...
- ✓ Saihestu errepikatzen diren ideiak.

Idatzi hemen goiko testutik aukeratu duzun informazioa

Orain, aukeratutako ideiak ordenatuko dituzue. Hori burutzeko izan kontuan ondoko jarraibideak

Informazioa ordenatzeko jarraibideak

- ✓ Ideiak antolatzeko irizpide bat aukeratu
 - Garrantzirik gehien duenetik gutxienera
 - Gauza orokorretatik berezitasunera
 - Denboraren arabera ordenatu
 - Espazioaren arabera ordenatu
- ✓ Labur esan
 - Esaldi laburrak
- ✓ Atalen arteko koordinazioa izan
- ✓ Osotasuna irudikatu
- ✓ Hierarkia adierazteko elementu grafikoak eduki

Jarraibideak kontuan hartuta, saiatuko zarete lehen testuan agertzen diren **ideiak ordenatzen eskema baten bitartez**.

Ideen arteko hierarkia jarrita dago. Idatzi puntu bakoitzaren ondoan ideia bat

Lehen testuari dagokion eskema	
1.	
2.	
2a.	
2 b.	
2c.	
3.	
4.	
a.	
b.	
c.	
d.	
	d 1.
	d 2 .
	d 3.
	d 4.
	d 5.
e.	
	e 1 -
	e 2
f.	

11.2. Orain ahozko testuari helduko diogu. Horretarako ondoko entzumena proposatzen dizuegu. Ekintza hau banan-banan burutuko duzue.

Ahozko testua, bi aldiz entzungo duzue, eta ondoren ulertu duzuen neurtzeko kontrol txantiloia beteko duzue. Hor, agertzen diren baieztapenak egia edo gezurra diren erantzuteko, jarri dagokion zutabearen gurutze bat.

Ekintza hori ondo burutzeko komeni zaizue ondoko iradokizunak kontuan izatea.

Entzumena bideratzeko kontrol txantiloia
➤ Entzun baino lehenago ✓ Irakurri galdetegian agertzen diren baieztapenak ✓ Argitu ulertzen ez dituzun hitzak edo esapideak ➤ Lehenengo aldiz entzuten duzunean ✓ Entzun, eta arkatzez markatu, zure ustez, erantzun zuzena. ➤ Bigarren aldiz entzuten duzunean ✓ Adi egon . ✓ Baieztatu lehenengoan arkatzez aukeratutakoa. ✓ Aukeratutakoa entzundakoarekin bat badator, boligrafoz markatu. ✓ Aukeratutakoa entzundakoarekin bat ez badator, ezabatu, eta boligrafoz egin aukera zuzena.

http://www.hiru.com/euskara/euskara_00250.html/flashPlant.htm?flashFile=euskara/euskara_00250.html/audio_es_01.swf


Esan egia ala gezurra diren

Euskara eta erromantze hizkuntzak	Egia	Gezurra
1. Erromantzeak latinetik deribatu diren hizkuntzak dira		
2. Euskarak ez du inguruko hizkuntzekin harremanik izan .		
3. Gaztelera eta gaskoia hizkuntz erromanikoak dira		
4. Euskarak erromantze hizkuntzen eragina izan du, hain zuzen ere, morfologian eta lexikoan		
5. Inguruko erromantzeek ez dute euskararen eraginik izan		
6. Glosas Emilianenses, eta Gonzalo de Berceoren erromantzeetan, euskarazko hitzak agertzen dira.		
7. San Millan de la Cogollako "Rejas de San Millan" dokumentuan, Arabako euskal toponimia ugari agertzen da		
8. Euskarak Erdi Aroan hedapen geografikoa galdu zuen		
9. Euskara, erdi aroan, nagusitu zen, administrazio eta kulturara hedatu baitzen.		

Orain, taldeka antolatuta, saiatu entzundako ideiak era ordenatuan jasotzen. Eta aurreko jardueran ikusi duzuen bezala, eskema bidez adierazten.

Ideiak honako hauek dira:

- Euskara eta erromantze hizkuntzak
- Euskarak erromantze hizkuntzetatik jasandako eragina
- Erromantzeak nagusitu
- Glosas Emilianenses eta Gonzalo de Berceoren erromantzeetan
- Euskarak hedapen geografikoa galdu
- Erromantze hizkuntzetan euskararen agerpena
- Euskara eta erromantze hizkuntzak Erdi Aroan
- Morfologian
- Lexikoan
- San Millan de la Cogollako "Rejas de San Millan" dokumentuan



Zenbait testutako informazioa jasotzen eta ordenatzen trebatu zaretenez, orain beste erronka bat jarriko diozue zeuen buruei. Behean dauden mapek eskaintzen duten informazioa, zeuen hitzekin azalduko duzue, baina lehenengo ideiak ordenatzeko eskema bat egingo duzue. Kontu handia izan, orain egingo duzuen eskemak ebaluaketarako balio izango duelako.

<http://www.puntubi.com/dokumentuak/baskoienhedapena.htm>

Erromatarrek Euskal Herrira etorri zirenean Euskal tribuen eta baskoien hedapena



Euskara eta euskaldunen lurraldea



Gogoratu ideiak antolatzeko erabili izan duzuen txantiloia

Informazioa azaltzeko irizpide bat erabili. Fija zaitezte.

- Espazioa. Eremu geografikoak (ibaiak, golkoak...). Nondik-Noraino
- Denbora. Datak. Zein mendetan?

Testuaren hurrenkera egiteko balioko dizue

Mapetan azaltzen den informazioaren eskema

Ondoren, eskemak ebaluatzeko txantiloia eskuan duzuela, beste taldekoek egindako eskemak baloratuko dituzue.

Taldeka egin duzuen eskema gelako horman itsatsiko duzue. Azpian eskemak ebaluatzeko txantiloia izango da, eta atal bakoitzari puntuazioa jarriko diozue.

Atal bakoitzeko puntuak gehituta, punturik gehien lortzen duenak, eredu gisa hartuko duzue. Baina, kontuz, oraindik hobe daiteke. Punturik gutxien lortu duen atalean erreparatu, eta azaldu hobetzeko proposamenak

Orain prest zaudete bakoitzak zuena hobetzeko.

Eskemak ebaluatzeko txantiloia	Bai-Ez	Puntuazioa
➤ Ideiak antolatzeke irizpide bat aukeratu da		
➤ Esaldi laburrak erabiltzen ditu		
➤ Mapetan azaltzen diren ideien osotasuna irudikatzen da		
➤ Atalen arteko koordinazioa agertzen da		
Hierarkia adierazteko elementu grafikoak erabiltzen dira		

Behin-betiko eskema eginda duzue, orain ordenatutako ideiak josiko dituzue. Baina, nola lotuko ditugu ideiak?, eta nola lotuko ditugu ideiak esaldiak garatzeko? Horretarako, testu antolatzaileak eta lokailuak erabiliko ditugu.

Lokailuak, testuko esaldien arteko lotura logikoak ezartzen dituzte

Emendiozkoak - Ere(ere bai, ere ez, baita ere, ezta ere..) - Gainera - Bestalde - Behintzat - Behinik behin - Bederen - Halaber - orobat	Hautakariak - Bestela - Osterantzean - Gainerakoan - Bertzenaz - Ezpabere
Aurkaritzakoak - Berriz - Ordea - Ostera - Dena den - Dena dela - Aldiz - Hala ere - Aitzitik - Alabaina	Ondoriozkoa - Beraz - Hortaz - Orduan - Horrenbestez - Honela(tan)
	Kausazkoak - Izan ere - Hain zuzen ere - Zeren - Bada

Testua egituratzeko eta antolatzeko testu antolatzaileak erabili behar dituzue. Baina, zer dira horiek?

Esan dugu ideiak paragrafoetan bananduko ditugula; beraz, euren arteko lotura egiteko testu antolatzaileak erabiliko ditugu josteta ondo ateratzeko

Sarrerako: <i>Aztertuko dugun gaia</i> <i>Idazki honen helburua.</i> <i>Idazki honen bidez</i> <i>Hasteko</i> <i>Lehenengo eta behin</i>	Idea berriak txertatzeko <i>Bestalde</i> <i>Gainera</i> <i>Halaber</i> <i>Beste alde batetik</i>	Bukatzeko: <i>Amai dezagun esanez</i> <i>Amaitzeko</i> <i>Laburbilduz</i> <i>Azkenik</i> <i>Honek zera erakusten du</i>
---	--	--

Badituzu behar beste tresna idazlana burutzeko. Zuek idatzitako testua gelakideen artean zuzenduko da, testu antolatzaile eta lokailuen erabilera aztertzeko. Lan hau testuaren plangintzarako ikasitakoa ebaluatzeko erabiliko da.

Idatzi zuen hitzekin mapek adierazten dutena.

Antzinako euskaldunak zabaldurik zeuden

5. LAN-SEKUENTZIA

HURBIL GAITEZEN INFORMAZIO ITURRIETARA

Gure hizkuntza-errealitatearen azterketan ari garela, ezinbestekoa egiten zaigu geure **hiztegi soziolinguistikoa** osatzea. Hitzen esanahia ezagutzea, baliagarri gerta dakiguke, gizarte mailan hizkuntzen inguruan ematen diren fenomenoak, errealitate soziolinguistikoa osatzen dutenak, eta hizkuntzei buruz informazioa ematen duten testuak aztertzeko, ulertzeko eta adierazteko..

Horretarako, zenbait pauso emango ditugu. Lehenengo hainbat testutatik hitzak atera, gero esanahia bilatu, (informazioaren trataera, hiztegi desberdin), eta azkenik, hitz horien inguruko hausnarketa egingo dugu.

Eginbehar hau, gaztelerako unitatean ere garatuko duzue.

Hizkuntza bietan landutako hitzekin, gelako fitxategia gauzatuko duzue. Horretan, hiztegi soziolinguistikoko sarrerak, lau hizkuntzatan adieraziko dira, baina esanahia unitatea lantzen den hizkuntzan, hots euskaraz edo gazteleraz

12 jarduera. Hiztegi motak bereizten. Hiztegiz hiztegi.

Oraingoan erabiliko dituzuen informazio iturriak hiztegiak izango direnez, begira dezagun euskaldunok horretarako dugun aukera. Irakurri baliabide horien berri ematen duen txantiloia.



Informazioa eskuratu nahi dugunean, zenbait iturritara jotzen dugu (Hiztegietara, entziklopedietara, hiztegi entziklopedikoetara, testu liburuetara...) euren euskarria, paperezkoa zein elektronikoa (CD-Romekoak edo internetekoak) direlarik. Baliabide hauei lan erreferentzi edo kontsulta-materiala deitzen diegu.

Kontsulta materialen artean lekuri garrantzitsuena hiztegiek hartzen dute; horietan alfabetikoki ordenatuta, gai baten inguruan dauden hitzak biltzen dira.

Hiztegien artean aurkitzen ditugu Hizkuntza hiztegiak, gai jakinei lotutako hiztegiak eta hiztegi entziklopedikoak. Horien barne beste azpi-sailkapena egin daiteke: Hiztegi orokorrak, eta hiztegi bereziak.

- **Hizkuntzako hiztegiak**, hitzen alderdi linguistikoaren berri ematen duten hiztegiak dira. Honetan, hiztegi orokorrak eta hiztegi bereziak aurki daitezke.
- **Hiztegi orokorrak**. Hizkuntzako hiztegiak izanda, hitzaren idazkera, ahoskera, etimologia, adierak, erabileraren adibideak, osatzen dituen esamoldeak eta esaerak, dagokion hizkuntza-maila, sinonimoak, antonimoak, erabiltzeko zailtasunak... azaltzen ditu hizkuntzako hiztegi orokorrak.
- **Hiztegi bereziak**. Hizkuntzako alderdi bati buruzko hausnarketa egiten da: sinonimoen edo antonimoen hiztegia, hiztegi etimologikoa, errimen hiztegia...

Landutako hizkuntza-kopuruaren arabera, elebakarrak, elebidunak edo eleaniztunak izango dira hiztegiak.

- **Gai jakinei lotutako hiztegiak eta hiztegi entziklopedikoak**
 - **Hiztegi terminologikoak**. Jakintza-eremuren bateko lexikoa edo terminologia biltzen dute hiztegiok
 - **Hiztegi entziklopedikoak eta entziklopediak**. Gizakiok munduaz dugun ezagutzaren berri ematen digute. Bien arteko muga zehaztea askotan erraza bada ere, oro har, esan daiteke hiztegi entziklopedikoetan jakingaiak bakarka eta alfabetoaren ordenan antolatuta datozela; entziklopedietan, berriz, jakintza-arloka eta alfabetoaren nahiz gaiaren arabera antolatuta. Orokorrak izaten dira giza ezagutza osorik hartzen badute, eta bereziak, gaiaren batera mugatzen badira.
 - ✓ **Hiztegi entziklopediko orokorrak**. Lexiko orokorra, jakintza-eremuetako oinarriko terminologia eta izen berez hartzen dituzte beren baitan.
 - ✓ **Hiztegi entziklopediko berezia**. Arloko adituen zalantza terminologikoei erantzuten die.

Informazio hori zuen esku dagoela, begiratu zuen ikastetxeko liburutegian aipatutako informazio iturrietatik zeintzuk dituzuen eta zeintzuk ez. Daudenei buruzko informazio gehiago jaso beharko duzue: zein den argitaletxea.

Lan hau bikoteka egingo duzue, eta informazio jasotzeko ondoko txantiloia erabiliko duzue.

Hiztegi motak	Bai/Ez	Zein?
Hizkuntzako hiztegi orokorra		
Hizkuntzako hiztegi berezia. Sinonimoak eta antonimoak		
Hizkuntzako hiztegi berezia. Elebakarra		
Hizkuntzako hiztegi berezia. Elebiduna		
Hiztegi terminologikoa		
Hiztegi entziklopediko orokorra		
Hiztegi entziklopediko berezia		
Entziklopedia orokorra		
Entziklopedia berezia		

Hiztegi ereduak eta ikastetxean dituzuenak ikusita, zuen hiztegi soziolinguistikoa osatzeko ondoko hau proposatzen dizuegu.

Hiztegi Terminologikoa

Definizioa: Giza mezuak transmititzeko balio duen zeinu artikulatuzko sistema. Hizketari kontrajartzen zaio: hizkuntza sistema da eta hizketa berriz sistema ideal hori gauzatuta.

eu

hizkuntza (*vs. hizketa*)

es

lengua (*vs. habla*)

fr

langue (*vs. parole*)

en

language (*vs. speech*)

http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice_e.htm

13. jarduera. Hainbat testutatik hizkuntza eta hiztunen eremuko hitzak biltzen.

Beheko testuetatik atera gelako hiztegi soziolinguistikoa egiteko balio izango zaizkizuen hitzak. Hiztegi soziolinguistikoa egiteko hitzen bilketa egin ostean, zerrenda handia egingo duzue eta zerrenda horretan testuen bidez lortutako hitzez gain, orain arteko jardueretan atera diren hitzak bururatzen badituzu, gehitu ahal dituzu.

Jarduera burutzeko ibilbidea

Taldeka antolatuta, talde bakoitzak beheko bi testu hartuko dituzue eta saiatuko zarete testu horretan, "hizkuntzak eta hiztunekin", zer ikusia dituzten hitzak aurkitzen. Hori egin eta gero, testuaren ezker aldean dagoen koadroan idatzi hitza, eta zuen hitzekin, kontestua dela medio, baita hitz horren esanahia ere. Esanahi hori gero, talde handian ahoz adierazteko balio izango zaizue.

12. testua

Hitzak eta esanahia zuen
hitzekin

Gizon-emakume guztiek duten kultur ondarerik preziatuena dira **hizkuntzak**; besteak beste, gizabanakoen eta kolektibitateen nortasun ezaugarriak adierazten dituzte, eta ezinbestekoak dira balioak sortzeko eta zabaltzeko, baita munduaren konplexutasuna ulertzeko ere.

<http://www.amarauna-languages.com>

13. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	Asko dira beren nortasuna galdu duten hizkuntzak , onartu nahi izan ez dituzten boterearen eraginez zapalduta. Arrisku berean daude munduan zehar egun hitz egiten diren hainbat hizkuntza txiki ere,...). Horietatik batzuk ez dira existitu ere egiten hitz egiten diren lurraldeko agintari politikoentzat. Minoritarioak izateaz gain, hizkuntza gutxituak dira; izan ere, hiztunak behartuta daude beraiena ez den beste hizkuntza bat erabiltzera (botere politikoak onartutako hizkuntza eta, ondorioz, nagusia) kulturaren eta administrazioaren erabilera eremuetan. Beste batzuek, euskara, bretoiera edo islandiera lekuko, hiztun kopuru esanguratsu batera iristen ez direlako hizkuntza minoritarioak badira ere, iraupena ziurtatuta daukatela ematen du beren, herri horien kulturaren indarrari eta hiztunek euren hizkuntza mantentzeko duten gogoari esker. Rafael del Moral, Las lenguas del mundo. Diccionario Espasa
--------------------------------------	--

14. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	Estatu batzuek, bertako hizkuntza guztiei estatu mailako ofizialtasuna aitortu beharrean, bestela jokatzekoa da: estatuko hizkuntza bat hautatu (ofizialtasun orokorreko hizkuntza, alegia), eta, gero, gainerako guztiei edo batzuei koofizialtasun maila ematen diete, zeini bere lurraldean. http://www.unescoeh.org/dokumentuak/Hizkuntzen Txostena Laburpena EuskEngl.pdf
--------------------------------------	---

15. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	Hego Amerikako herrialdetako hizkuntz aniztasuna oso handia izan arren oso hizkuntza gutxi erabiltzen dira eremu formalean. Perun, adibidez, nahiz eta Quechuera eta Aimara hizkuntzak ofizialak izan, noizbehinka erabiltzen dira administrazio publikoan. Instituto Indigenista Peruano erakundeak emandako datuetan oinarrituta
--------------------------------------	--

16. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	Orain arte munduko biztanleriaren zati handi batek gizabanakoaren egoera ideala elebakartasuna zela uste zuen. Ideia horrekin amaitzea lortu da eta gaur egun jakin badakigu elebakartasuna ez dela batere ona. Gizateriaren %40 eleanitza da, gutxienez elebiduna, eta globalizaziora jotzen duen mundu honen barruan jendeari elebakartasuna alde batera uzten lagundu behar diogu. Izaera irekia izan behar duen mundu berri honetan elebakarrak gaizki moldatuko dira. Alde horretatik, elebidun edo eleanitzak direnek abantaila argia dute pertsona elebakarren aldean” Unescoren Hizkuntza Aniztasunaren Batzordeko Felix Marti lehendakariaren hitzak
--------------------------------------	--

17. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	"Azken mende hauetan hizkuntzen alorrean gertatu zaigun gauzarik larriena hainbatetan gurasoek seme-alabei beraien hizkuntzan berbarik ez egitea aholkatu izana da, beraiena ez beste hizkuntza batzuk ikasita aukera gehiago izango dutela uste izatea. Hau da, hiztunak bere hizkuntzari baliorik ematea. Hizkuntz komunitateak autoestimua handia izatea lortu behar du, eta hiztunei ulertarazi behar diegu ikasketak ama-hizkuntza horretan burutzea bestelako hizkuntzak ikastearekin erabat bateragarria dela. Unescoren Hizkuntza Aniztasunaren Batzordeko Felix Marti lehendakariaren hitzak
--------------------------------------	--

18. testua

Hitzak eta esanahia zuen hitzekin	Gertatu ohi da Hizkuntza komunitate bateko hiztunek, hau da, hizkuntza bera erabiltzen duten gizakiek, euren hizkuntzari baliorik ez ematea; seme-alabei ez erakutsi edota erabilera eremu jasoetan (hedabideetan, irakaskuntzan...) beraiena ez den beste hizkuntza bat erabiliz. Hizkuntzaren balioa kontzientziarik ez edukitze horrek komunitatearen jatorriko hizkuntzaren ordezkatzeari ekar dezake berarekin, prestigio eta indar handiago duen beste hizkuntza baten onuran. Daniel Cassany, Enseñar lengua, Grao (Egokitua)
--------------------------------------	---

Orain talde handian bildu eta aztertutako hitzak alfabetikoki ordenatu eta idatzi zeuon koadernoan. Ondoren, entzun egingo dituzue beste taldekoek ematen dituzten definizioak eta saiatu egingo zarete definizio horiek zerrendako hitzekin lotzen. Ea ondo egiten duzuen!

Jarduera bukatzeko, hona hemen hiztegi terminologiakoak dakartzan definizioak, lotu terminoak eta definizioak.

HITZEN ZERREDA

Hizkuntza

- Hizkuntza
- Hizkuntza-aniztasuna
- Ama-hizkuntza
- Hizkuntza komunitatea
- Hizkuntza ofiziala.
- Erabilera eremua
- Hizkuntza minoritarioa
- Hizkuntza txikia
- Hizkuntza gutxitua
- Hizkuntza nagusia

Hiztunak

- Elebakarra
- Elebiduna
- Eleanitza
- Hitzuna

DEFINIZIOAK

- Haur batek bereganatzen duen lehen hizkuntza edo hizkuntzak, gehienetan gurasoengandik ikasita .
- Giza mezuak transmititzeko balio duen zeinu artikulatuzko sistema.
- Gizarte batean hizkuntza bat baino gehiago elkarrekin ukipenean daudenean sorten den egoera
- Hizkuntza bera erabiltzen duen gisa taldea.
- Lege-egoerari dagokionez, lurralde batean indarrean dagoen hizkuntza
- Hizkuntza erabiltzen den egoera edo gune zehatzak, hala nola, etxea edo lagunartea, eskola, instituzioak edo komunikabideak
- Estatuen babesa jasotzen ez duten hizkuntzak, edo oso babes gutxi lortzen dutenak, hots, estatuko hizkuntza ofizialak ez direnak
- Erabilpen eremu guztietan agerpena izateaz gain, erabili ere egiten dena.
- Erabilpen eremu murriztua duena. Gehienbat, etxera edo lagunartera mugatzen dena .
- Hitzun kopuru esanguratsu batera iristen ez direnak.
- Hiru hizkuntza edo gehiago dakizkiena.
- Hizkuntza bakar bat ezagutu eta erabiltzen duena.
- Bi hizkuntza dakizkiena
- Hizkuntza jakin batez mintzatzen dena

14. jarduera. Lexiko sorkuntzarako bideak. Hitz elkartuak eta hitz eratorriak.

Aurreko jardueran lortu dugu "Hizkuntza eta hiztun"en eremuko hitzen bilduma egitea. Hasieran osatu duzuen taldean bilduta saiatuko zarete beheko txantiloian agertzen diren galderei erantzuten. Jarri borobilean, zuen ustez, zuzena den erantzuna.

Zenbait hausnarketa egiteko txantiloia

1. Nola daude eratuta hitzak?

- Hitz bakar batez
- Bi hitzez

2. Hitz bakar batez osatuta dauden artean, **badago**

- Aurrizkirik, artizkirik ez atzizkirik gabeko hitzik, hau da, **hitz soilik** ?
✓ Bai//Ez

Adibidez:

- Aurrizkirik, artizkirik edo atzizkirik dituzten hitzik, hots, **hitz eratorririk**?
✓ Bai
✓ Ez

Adibidez (bereizi hizki bakoitza)

Aurrezkidun hitzak	Artizkidun hitzak	Atzizkidun hitzak

3. Bi hitzez osatutakoen artean, hots, hitz elkartu edo konposatuen artean, **badago**

- Hitz elkartuaren lehenengo osagaia bera duenik?
✓ Bai
✓ Ez

Adibidez:

Hitz elkartua osatzen duten osagaien kategoria gramatikala bera dute, hots, osagai biak dira izenak edo adjektiboak edo aditzoinak?

✓ Bai//Ez

Adibidez

- Hitz elkarturik osagaien kategoria gramatikal berdina duenik?

✓ Bai //Ez

Adibidez:

Egindakoari erreparatzen badiegu honelako hausnarketa egin daiteke.

- askok "hizkuntza" hitza dute lehenengo osagai gisa.
- hitz elkartua osatzen duten hitzen kategoria gramatikala ez dela bera; batzuk izenak edo aditzoinak dira, besteak adjektiboak edo aditzak eta abar.
- Hitz elkartua unitate gisa hartuta, batzuek errepikatzen dute osagaien kategoria gramatikala

Saiatuko gara gure hiztegi soziolinguistikoko hitz elkartuak kategoria gramatikalen arabera sailkatzen.

Hitz elkartuen sailkapena kategoria gramatikalak kontuan hartuz				
Izena+Izena	Izena+Izenondoa	Aditzoina+izenondoa	Izena+aditza	Hitz elkarketa kopulatiboa

Agian hiztegi soziolinguistikoko hitz batzuk goiko sailkapenean ez dute lekurik izan.

- Badago goiko sailkapenean lekurik izan ez duen hitzik?

✓ Bai //Ez

Zein da?

Goiko datuak erabilita. Nola dagoela eratuta esango zenuke?. Azaldu

Gelako hiztegi soziolinguistikoa erdi eginda dago. Orain gelako fitxategian sartzeko, jakin behar duzue zein itxura eman nahi diozuen. Ez ahaztu fitxategi hau osatzeko gaztelerako unitatean ere fitxak osatzen ari zaretela, beraz, formatu bera erabiliko dugu

15.jarduera. Gelako hiztegi soziolinguistikoa.

Gelako hiztegi soziolinguistikoa osatzeko fitxa

Esanahia:


Hitza euskaraz:

Hitza gazteleraz:

Hitza frantsesez:

Hitza ingelesez:

Iturria:



Bildu fitxak gelako fitxategian eta erabili behar duzuen bakoitzean, **GOGORATU:**

- ✓ Azalpen testua egin behar duzula. Horretan agertuko diren hitz askoren esanahia zure ikaskideek jakingo ez dutenez, azalduko beharko diezula.
- ✓ esanahi argiak eta adierazkorrak aurkitzen saiatu behar zaretela, igorleak zuk baino gutxiago dakielako
- ✓ Hitzen esanahiak gorde behar dituzuela azalpen-panelean erabiltzeko

6. LAN-SEKUENTZIA INFORMAZIO-PANELA GAUZATZEN

Heldu da informazio-panela garatzeko momentua. Unitatean zehar hiztunak eta hizkuntzen inguruan zenbait informazio aurkitu, jaso, bildu eta eraldatzen ikasi duzue. Bigarren sekuentzian, informazio paneletan, informazio helarazteko, erabiltzen diren baliabideak: grafikoak, marrazkiak, irudiak, zein testu idatziak, eta euren kokapena eta ezaugarriak aztertu dituzue. Zuen informazio panela garatzeko beste informazio eta estrategiak dituzuela esan daiteke.

Sekuentzia honetan zuen informazio-panela gauzatzeko behar dituzuen pausoak emango dituzue. Erabakiko duzue panelak izango duen egitura edo maketazioa, bertan jorratuko den gaia, eta hori mamitzeko, eskuratu eta eraldatuko duzuen informazioa.



Beraz, taldeak osatu, eta hasi lanean.

Zuen eginbeharra ondo betetzeko komeni zaizue ondoko puntuak kontuan hartzea.

Informazio-panela gauzatzeko pausuak
➤ Informazio-panelaren kontestualizazioa: ▪ Komunikazio egoera • Gaia • Igorlea • Hartzailea • Kanala • Asmoa • Erabilpen eremua • Testu tipoa • Testu generoa ➤ Informazio- panelaren Plangintza ▪ Informazioa aukeratzea ▪ Informazioa ordenatzea ➤ Testualizazioa ➤ Berrikusketa ➤ Ebaluaketa

16. jarduera. Informazio-panelaren kontestualizazioa.

Honetan azalduko den informazioa, zein komunikazio egoeretan emango den argituko da; hots, zein den gaia, nortzuk diren igorlea eta hartzailea, zein den kanal, helburua edo asmoa, erabilpen eremua, testu tipo eta testu genero. Gogoratu negoziazioarako jardueran landutakoa, eta datu horiekin bete zuen informazio-panelaren komunikazio egoera



17. jarduera. Informazio-panelaren plangintza.

Informazio-panelaren bitartez eskainiko duzuen informazioaren kontestualizazioa eginda duzue. Behingoz, gauza asko argitu dituzue eta gainera, jakintza horiek, baliagarriak izango zaizkizue idazten hasten zaretenerako: zenbatgarren pertsonan idatzi, zein hizkuntza mota erabili eta abar.

Jarduera honetan bi ekintza burutuko dituzue; bata, **informazio panelaren krokisa edo bizkar hezurra** egitea izango da, eta bestea, **testu idatzia** gorpuzteko, informazioa aukeratzea, eta antolatzea.

Hiztunak eta hizkuntzen gaia jorratzeko gelako informazio-panel bakarra egin beharrean, zenbait informazio-panel egingo dituzue. Horretarako, hasierako jardueran lantzeko azaldu ziren gaien artean, aukeratu bat, eta osatu taldea gai hori landu nahi dituzuenen artean.

Zuen informazio-panelean azalduko duzuen, gai nagusiaren adar bat baino ez da izango, eta guztiak elkartuz, hiztunen eta hizkuntzen informazioa osoa izango duzue.

17.1. Informazioa panelaren krokisa edo maketazioa.

Gogoratu informazio-panelean ematen den informazioa, testu idatziz, zein argazkiz, zein irudiz azaldua datorrela. Beraz, adi egon, eta ondo pentsatu nola antolatuko duzuen panel horretan dagoen espazioa (marrazkiak, argazki-oinak, testu idatzia, zuriuneak). Taldeka antolatuko zarete, eta talde bakoitzak, bere informazio panelaren bizkar hezurra burutzen saiatuko da.

Kontrol-zerrenda honek balio izango dizue, egingo duzuen informazio-panelaren espazioa antolatzeko. Hau da, marrazkien, grafikoen, irudien, testu idatzien eta zuriuneen kokapena zehazteko.

Krokisa, zuen koadernoan egingo duzue

Informazio-panelaren krokisa osatzeko kontrol-zerrenda

1. Gogoan izan hartzaileak ahalik eta ahaleginik txikiena egin behar duela informazioa jasotzeko. Beraz, zaindu ondo testu eta marrazkien kokapena. Idatzien antzera has zaitezke: ezkerretik eskuinera, goitik behera.
2. Ikusiaz bat jakin behar du irakurleak zein den gaia; beraz, aukeratu duzuen gaia izenburutzat hartuz, hizki argi eta era erakargarrian, jarri bere kokalekuan.
3. Gai hori azpi-gaietan sailkaturik emango duzue paragrafoak direla medio. Gutxienez, bata, sarrerako ,bestea, garapenerako eta azkena, bukatzeko.
4. Markatu zuen krokisean zein leku izan ditzakeen bakoitzak.
5. Marrazki, grafiko..eta abarren kokapena zehaztu.
6. Egileen izena jartzeko, aurkitu leku bat panelaren azpialdean.

Gogoan izan. Informazio-panela horman jarritakoan, idatzita dagoen guztia irakurgarria izan behar du. Erakargarria egin zure informazio-panela

Zuen panelaren krokisa eginda daukazue. Hemendik aurrera, sekuentzietako jardueretan lortutako informazioa jasoko duzue, bizkar-hezur hori gorpuzteko.


17.2. .Informazio panelaren testu idatzia.

.Informazioa aukeratzea. Aurreko sekuentziaren batean zuek aukeratutako gaia jorratua izan da. Handik, aukeratu ideiarik garrantzitsuenak, eta baztertu errepikatzen direnak edo esanguratsuak ez direnak. Hortik eskura dezakezue zuen informazioa. Nahikotzat joko ez bazenute, jo beste informazio iturri batzuetara: entziklopediak, testu liburuak, hiztegiak, aldizkariak...

Aukeratutako gaiaren inguruko ideiarik garrantzitsuenak eta esanguratsuenak	Informazio-iturriak
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	
7.	
8.	

- **Informazioa antolatzea.** Testuaren bizkar-hezurra egingo duzue. Horretarako, ideien arteko loturak argi geratu behar dira. Irizpide jakin baten arabera antolatuko dira. Aukeratu beheko laukitik, informazio-panelean agertuko diren ideiak antolatzeko irizpiderik egokienak. Aukeratutakoak markatu gurutze batez.

Ideiak antolatzeko irizpideak
✓ Garrantzirik gehien duenetik gutxienera edo alderantziz
✓ Ez ohizkoenetik ohizkoenera
✓ Denboraren arabera
✓ Espazioaren arabera



Ideiak ondo antolatzeko komeni zaizue eskema bat egitea. Eskemak lagunduko dizue ideiak ordenatzen eta testuaren informazioa osotasunean ikusten. Gogoratu **4. sekuentzian eskemak** egiten erabili dituzuen prozedurak .

- Testu idatziaren eskema zuen koadernoan egin.
- Testu idatzia garatzeko gidoia baduzue, baina zuen eginbeharra testu genero berezi bat lantzea denez, hain zuzen ere, informazio-panela, genero honi dagozkion ezaugarriak kontuan hartu beharko dituzue.

18. jarduera. Testualizazioa.

Begiratu zenbat gauza dakizkizuen eta zenbat gauza egiten trebatu zareten, beraz, aurre egin behar diozuen hurrengo erronkari ez diozue beldurrik izan behar, aurreko urratsetan bezain ondo garatzeko gaitasuna baituzue. Aurrera neska-mutilak!

- **Badakizue:**
 - Zein den komunikazioaren egoera (nork, nori, zer, nola, zertarako, zeren bidez)
- **Egin duzue:**
 - Informazioaren bilketa eta antolaketa
 - Marrazkiak eta grafikoak bildu dituzue
 - Informazio-panelaren krokisa eginda duzue
- **Orain:**
 - Informazio panela egiteko garai heldu da. Honetan garatzen diren alderdi biei erreparatuko diezue eta lagungarri gisa ondoko kontrol-zerrenda erabiltzea proposatzen dizuegu. Testu idatzia garatzeko unean zaudete.



Informazio-panelaren testualizaziorako kontrol-zerrenda

- **Ideiak paragrafoetan antolatu.**
- **Kontzeptu bat garatzeko paragrafo bat:** Ideia nagusia daraman esaldi bat du ardatz eta adibideak, xehetasunak, salbuespenak, eta beste ematen dituen beste esaldi bat osagarri.
- Pentsatu paragrafo horien artean zeinek balio zaizuen sarrerako, zeinek gaiaren garapenerako, eta zeinek bukaerarako.
- **Gaia antolatze gutzienez hiru paragrafo erabiliko dituzue eta gehien jota zortzi.**
- **Paragrafo bakoitza hiru eta zortzi esaldi bitarte osatuko duzue. Hobe laburrak izatea.**
- **Paragrafoen arteko zuriuneak gorde.**
- Azalpenaren zatiak bereizten, ordenatzen eta garrantzitsua dena nabarmentzen duten elementu ortotipografikoak erabili (tipografikoak), puntuazio-markak (puntua, puntua eta aparte, koma ...).
- **Testuko ideiak lotzeko antolatzailerak erabili.**
 - **Ordena adierazteko:** Hasteko, lehenik eta behin, lehenengoz, gero, ondoren, bigarren, honen ostean, azkenik...
 - **Ideiak gehitzeko:** gainera, halaber, eta, era berean, baita... ere, ezta, ezta... ere, ez ezik... , ere.
 - **Adibideak emateko.** Adibidez, esate baterako, besteak beste, hala nola..
 - **Birformulatze:** hau da, hots, beste modu batean esanda, alegia...
 - **Denborazkoa**
- Zeuok igorleak zarete, baina testuan zeuen burua ezkutatu eta **mezua modu inbertsonalean eman, 3 pertsona.**
- **Hartzaileak jakin dezakeen informazioa saihestu.**
- **Hartzaileak ezagutzen ez dituen kontzeptuak argitu.**
- **Euskara zuzentasunez erabili.**
- **Gogoan izan hartzaileak ahalik eta ahalegin txikiena egin behar duela informazioa jasotzeko. Beraz, zaindu ondo testu eta marrazkien kokapena. Idatzien antzera has zaitezke: ezkerretik eskuinera, goitik behera.**

19. jarduera. Berrikusketa.

Berrikus ezazue zuen ekoizpena, eta egin beharreko aldaketa eta zuzenketak egin, hurrengo kontrol zerrendan jasotako alderdiei erreparatuz.

Berrikusketarako kontrol zerrenda

➤ Edukiaren eta egituraren berrikusketak

- Aukeratu duzuen gaia garatzeko beste informazio eman duzue? Ez gehiegi ezta gutxiegi ere.
- Informazioa iturri fidagarrietatik lortu duzue?
- Ideia argiak, eta ulergarriak adierazten dituzue?
- Datuen aurkezpenak aldez aurretik erabakitako ordena baten arabera antolamendua erakusten du? (orokorretik xehera...)
- Paragrafoek ideia oso bana garatzen dute?
- Paragrafoak puntu eta apartez mugaturik agertzen dira?
- Argazki/krokis/irudien kokapenak laguntzen dute mezua argitzen?

➤ Ideien arteko lotura

- Testuko esaldiak elkarrekin egoki erlazionatu dituzue?
- Testuko ideiak ordenatzeko eta enumeratzeko puntuak, zenbakiak edo letrak erabili dituzue?
- Ideia garrantzitsua nabarmentzeko zenbait letra tamaina eta mota erabili dituzue?
- Testu antolatzaile egokiak erabili dituzue?

➤ Hizkuntzaren zuzentasuna

- Aditzaren aspektuaren erabilera zuzena egin duzue?
- Erderakadarik edo bestelako erabilera okerrik ba al dago zuen testuan?
- Lexiko egokia erabiltzen duzue?

Berrikusketaren ondorioz egindako aldaketak eta zuzenketak txukun jaso. Orain, zeuen testuaren berridazketa baino ez zaizue gelditzen. Aurrera, bada!

Kontuz! Informazio-panela horman jarritakoan, idatzita dagoen guztiak irakurgarria izan behar du. Erakargarri egin zure informazio-panela.

20. jarduera. Ebaluaketa.

Zuen informazio-panelak ikastetxeko pasabidean itsatsita daude. Hartu ondoko ebaluaketarako txantiloia, eta ebaluatu zuek egin ez dituzuen informazio-panelak.
Ebaluaketa egin ostean, idatzi hobetzeko proposamenak .

Jarri gurutze bat dagokion erantzunaren azpian.

Informazio-panelak ebaluatzeko txantiloia			
Aurkezpena	-Irakurleak ikusiaz bat, badaki zein den informazio-panelaren gaia. -Hartzaileari irakurtzeko xirara sortzen dio erakargarria baita. -Testu idatzia eta marrazkien antolaketak, irakurketa errazten dute. -Testu idatziaren, marrazkien eta hutsarteen banaketa egokia da. -Letra ulergarri eta txukun idatzita dago	Bai	Ez
Garapena	-Gaia paragrafoetan sailkaturik dago. -Paragrafoak puntu eta apartez mugaturik agertzen dira. -Datuak orden baten arabera azaltzen dira. -Ideia argiak eta ulergarriak adierazten ditu . -Gaia garatzeko beste informazio ematen du. -Hartzaileari informazio berria eskaintzen dio -Hitz ez ezagunak adierazteko hainbat baliabide erabiltzen dira -Gutxienez hiru letra tamainu erabiltzen dira: - Handia: izenburuak - Ertaina: azpi-izenburuak - Txikia: azalpenak -Ideien arteko hierarkia erabiltzeko, zenbakiak, puntuak, letrak... erabiltzen dira. -Testuko ideiak lotzeko zenbait testu antolatzaile erabiltzen dira -3. pertsonan idatzita dago.		
Bukatzeke	-Hitz gutxitan laburtzen du esandakoa. -Esaldi bat dela medio, animatzen ditu hartzaileak Hizkuntzak eta Hiztunak errespetatzera		